bazaie, lehenago indarrean zegoen arautegian ezarritakoa aplikatzen jarraituko zaie.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Foru arau hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Bigarrena. Foru arau hau garatzeko eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko baimena eman zaio Arabako Foru Aldundiari.

Hirugarrena. Foru Arau hau, onetsi ondoren, Zerga Koordinaziorako Organora bidaliko da ezagutu eta harmonizatu dezala, egokia bada.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko martxoaren 11.– Lehendakaria, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

1378

9/2013 foru araua, martxoaren 11koa, Ondarearen gaineko Zergari buruzkoa.

Arabako Biltzar Nagusiek, 2013ko martxoaren 11an egindako Osoko Bilkuran ondoko Foru Araua onetsi dute:

9/2013 foru araua, martxoaren 11koa, Ondarearen gaineko Zergari buruzkoa

ARRAZOIEN AZALPENA

Kontzertu Ekonomikoko 24. artikuluan ezarrita dago Ondarearen gaineko Zerga arautegi autonomoko zerga itundua dela.

Abenduaren 22ko 22/2008 Foru Arauaren bidez Ondarearen gaineko Zergari buruzko abenduaren 11ko 23/1991 Foru Araua indargabetu zen (2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasi zen ondorioak sortzen).

Harrezkero krisi larri batek mundu osoko ekonomia eta finantzak kolpatu ditu, eta horregatik abenduaren 22ko 19/2011 Foru Arauaren bitartez Ondarearen gaineko Zerga, indargabetuta zegoena, berriz ere indarrean jarri zen 2011rako eta 2012rako.

Egoera ekonomikoaren egungo bilakaera ikusirik, argi dago ondare handia duten zergadunei elkartasun ahalegina egiten jarraitzeko eskatu behar zaiela; ondorioz, laster abenduaren 22ko 19/2011 Foru Arauaren indarraldia amaituko denez, beste foru arau bat jarri behar da indarrean Ondarearen gaineko Zerga aplikatu ahal izateko.

Proiektu honetan Ondarearen gaineko Zergan aldaketa garrantzitsuak egitea proposatzen da. Besteak beste, jarduera ekonomikoei lotutako ondasunen eta jarduera ekonomikoak egiten dituzten erakundeetako partaidetza batzuen salbuespenei buruzko arauak aldatu dira, ondasun higiezinen zerga oinarria kalkulatzeko aplikatu beharreko arauak bateratu dira, eta Ondarearen gaineko Zergaren kuota osoaren doikuntzari buruzko arauak aldatu dira.

I. KAPITULUA

IZAERA ETA APLIKAZIO EREMUA

1. artikulua.- Zergaren izaera eta xedea.

Ondarearen gaineko Zerga tributu pertsonala eta zuzenekoa da; zergadunen ondare garbia kargatzen du foru arau honetan ezarritakoarekin bat etorriz.

Zerga honen ondorioetarako zergadunaren ondare garbia kalkulatzeko hura titular den ondasun eta eskubide ekonomiko guztiak batu behar dira eta eragiketa horren emaitzatik ondoko hauek kendu: ondasunen eta eskubideen balioa murrizten duten kargak eta zamak, eta zordunak aurre egin beharreko zorrak eta betebehar pertsonalak.

2. artikulua.- Aplikazio eremua.

Bat. Foru arau honetan xedatutakoa zergadun hauei aplikatuko zaie:

de aplicación la nueva regulación de la prescripción contenida en la presente Norma Foral, se les continuará aplicando lo dispuesto en la normativa anteriormente vigente.

DISPOSICIONES FINALES

Primera. La presente Norma Foral entrará en vigor al día siguiente al de su publicación en el BOTHA.

Segunda. Se autoriza a la Diputación Foral para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y ejecución de la presente Norma Foral.

Tercera. La presente Norma Foral, tras su aprobación, se remitirá al Órgano de Coordinación Tributaria para su conocimiento y armonización, si procede.

Vitoria-Gasteiz, 11 de marzo de 2013.– El presidente, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

1378

Norma Foral 9/2013, de 11 de marzo, del Impuesto sobre el Patrimonio.

Las Juntas Generales de Álava en su Sesión Plenaria celebrada el día 11 de marzo de 2013, han aprobado la siguiente Norma Foral:

Norma Foral 9/2013, de 11 de marzo, del Impuesto sobre el Patrimonio

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

El Concierto Económico establece, en su artículo 24, que el Impuesto sobre el Patrimonio es un tributo concertado de normativa autónoma.

Por medio de la Norma Foral 22/2008, de 22 de diciembre, se derogó con efectos desde el 1 de enero de 2008, la Norma Foral 23/1991, de 11 de diciembre, del Impuesto sobre el Patrimonio.

Desde entonces la situación económica y financiera se ha visto afectada, a nivel mundial, por una crisis que aconsejó, con carácter transitorio para los años 2011 y 2012, restablecer el derogado Impuesto a través de la Norma Foral 19/2011, de 22 de diciembre.

La evolución de la actual situación económica plantea la necesidad de mantener el esfuerzo de solidaridad exigido a los contribuyentes que disponen de un patrimonio más elevado, por lo que, ante el fin de la vigencia de la citada Norma Foral 19/2011, de 22 de diciembre, se hace necesario una nueva Norma Foral que mantenga el Impuesto sobre el Patrimonio.

El Impuesto sobre el Patrimonio que se propone contiene importantes modificaciones. Así, y entre otras novedades, se articula una nueva regulación de la exención de bienes afectos y determinadas participaciones en entidades dedicadas a la realización de actividades económicas, se establecen unas mismas reglas de determinación de la base imponible del Impuesto aplicables a los bienes inmuebles y se realiza una nueva regulación del ajuste de la cuota íntegra del Impuesto sobre el Patrimonio.

CAPÍTULO I

NATURALEZA Y ÁMBITO DE APLICACIÓN

Artículo 1.- Naturaleza y objeto del Impuesto.

El Impuesto sobre el Patrimonio es un tributo de naturaleza personal y directa que grava el patrimonio neto de los contribuyentes en los términos previstos en la presente Norma Foral.

A los efectos de este Impuesto, constituirá el patrimonio neto del contribuyente el conjunto de bienes y derechos de contenido económico de que sea titular, minorado en las cargas y gravámenes que disminuyan su valor, y con deducción de las deudas y obligaciones personales de las que deba responder el contribuyente.

Artículo 2.- Ámbito de aplicación.

Uno. Lo dispuesto en esta Norma Foral será de aplicación a los siguientes contribuyentes:

a) Betebehar pertsonalagatik, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga Arabako Foru Aldundiari ordaindu behar dioten pertsona fisikoei; Zergak zergadun hauen ondare garbi osoa kargatuko du, ondareko elementuak zein lurraldetan dauden kontuan hartu gabe.

b) Betebehar errealarengatik, Espainiako lurraldeko egoiliar ez diren pertsona fisikoei, Espainiako lurraldean titular moduan dauzkaten ondasun eta eskubideengatik, baldin eta ondasun eta eskubide horien baliorik handiena euskal lurraldean kokatuta egonik, Arabako Lurralde Historikoan daudenen balioa beste lurralde historikoetan daudenena baino gehiago bada.

Letra honetan ezarritakoaren ondorioetarako, lurralde batean dauden ondasunak eta eskubideak, bertan erabili ahal direnak eta bertan bete behar direnak lurralde horretan kokatutzat joko dira.

Zergak zergadunek Espainiako lurraldean dauzkaten ondasunak eta eskubideak soilik kargatuko ditu, foru arau honetako 11. artikuluko 4. idatz zatian xedatutakoarekin bat etorriz.

c) Espainiako lurraldeko egoiliar ez izan arren azken egoitza Araban eduki duten pertsona fisikoei, baldin eta Zerga Araban ordaintzea hautatzen badute betebehar pertsonalagatik. Arabako egoiliar izateari uzten zaion lehenengo ekitaldian autolikidazioa aurkeztuz egin behar da hautapena.

d) Espainiako estatuak eta Euskal Administrazio Publikoak atzerrian dauzkaten ordezkariei eta funtzionarioei, hain zuzen ere betebehar pertsonalagatik edo errealagatik Zergaren kargapean daudenei, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko arautegian zergadun horiez xedatutakoarekin bat etorriz.

Bi. Ohiko egoitza zein den zehazteko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko arautegian xedatutakoa aplikatuko da.

3. artikulua.- Nazioarteko itunak eta hitzarmenak.

Foru arau honetan ezarritakoak ez du eragozten Espainiako barne antolamenduko nazioarteko itunetan eta hitzarmenetan xedatutakoa.

II. KAPITULUA

ZERGA GAIA

4. artikulua.- Zerga gaia.

Hauxe da zerga gaia: zergaduna foru arau honetako 1. artikuluan aipatzen den ondare garbiaren titularra izatea Zergaren sortzapena gertatzen denean.

Zergaren aurreko sortzapenean zergadunarenak izan diren ondasunak eta eskubideak beraren ondarekotzat joko dira, ondare eskualdaketa edo galera gertatu dela frogatu ezean.

5. artikulua.- Salbuetsita dauden ondasunak eta eskubideak.

Zerga honetatik salbuetsita daude:

Bat. Euskal Kultura Ondareko ondasunak, Kultur Ondasun Kalifikatuen Erregistroan edo Euskal Herriko Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legean aipatutako Inbentario Orokorrean inskribatuta daudenak.

Bi. Batetik, Espainiako Ondare Historikoko ondasunak, Kultura Intereseko Ondasunen Erregistro Orokorrean edo Ondasun Higigarrien Inbentario Orokorrean inskribatuak, Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legeak aipatzen dituenak; bestetik, lege horretako bigarren xedapen gehigarrian aipatzen direnak, baldin eta Kultura Ministerioak kultura intereseko ondasuntzat jo baditu eta behar den erregistroan inskribatuta badaude.

Hala ere, zona arkeologikoen eta gune edo multzo historikoen kasuan, salbuespena ez zaie aplikatuko mugatutako perimetroaren barruan dauden ondasun higiezin guztiei; aitzitik, baldintza hauek betetzen dituztenei soilik aplikatuko zaie:

a) Por obligación personal, a las personas físicas que estén sujetas como contribuyentes por el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas cuya exacción corresponda a la Diputación Foral de Álava, exigiéndose el Impuesto por la totalidad de su patrimonio neto, con independencia del territorio donde radiquen los elementos patrimoniales objeto de tributación.

b) Por obligación real, a las personas físicas no residentes en territorio español que sean titulares de bienes y derechos que radiquen en territorio español, cuando radicando en territorio vasco el mayor valor de dichos bienes y derechos, el valor de los que radiquen en el Territorio Histórico de Álava sea superior al valor de los que radiquen en cada uno de los otros Territorios Históricos.

A los efectos de lo dispuesto en esta letra b), se entenderá que radican en un determinado territorio los bienes y derechos que estuvieran situados, pudieran ejercitarse o hubieran de cumplirse en dicho territorio.

El Impuesto se exigirá al contribuyente exclusivamente por los bienes o derechos que radiquen en territorio español, teniendo en cuenta lo dispuesto en el apartado 4 del artículo 11 de la presente Norma Foral.

c) A las personas físicas no residentes en territorio español que hubieran tenido su última residencia en Álava, siempre que opten por tributar en Álava conforme a la obligación personal. La opción deberá ejercitarse mediante la presentación de la autoliquidación por este Impuesto en el primer ejercicio en que hubieran dejado de ser residentes en Álava.

d) A los representantes y funcionarios del Estado español en el extranjero y de Organismos, Instituciones o de Estados extranjeros en España, que quedarán sujetos a este Impuesto por obligación personal o real, atendiendo a lo dispuesto para tales contribuyentes en la normativa del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

Dos. Para la determinación de la residencia habitual se estará a lo dispuesto en la normativa del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

Artículo 3.- Tratados y Convenios Internacionales.

Lo previsto en esta Norma Foral se entenderá sin perjuicio de lo dispuesto en los Tratados y Convenios Internacionales que formen parte del ordenamiento interno español.

CAPÍTULO II

HECHO IMPONIBLE

Artículo 4.- Hecho imponible.

Constituirá el hecho imponible del Impuesto la titularidad por el contribuyente del patrimonio neto a que se refiere el artículo 1 de esta Norma Foral, en el momento de devengo del Impuesto.

Se presumirá que forman parte del patrimonio los bienes y derechos que hubieran pertenecido al contribuyente en el momento del anterior devengo, salvo prueba de transmisión o pérdida patrimonial.

Artículo 5.- Bienes y derechos exentos.

Estarán exentos de este Impuesto:

Uno. Los bienes integrantes del Patrimonio Cultural Vasco, inscritos en el Registro de Bienes Culturales Calificados o en el Inventario General a que se refiere la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco.

Dos. Los bienes integrantes del Patrimonio Histórico Español, inscritos en el Registro General de Bienes de Interés Cultural o en el Inventario General de Bienes Muebles a que se refiere la Ley 16/1985, de 25 junio, del Patrimonio Histórico Español, así como los comprendidos en la Disposición Adicional Segunda de dicha Ley, siempre que en este último caso hayan sido calificados como Bienes de Interés Cultural por el Ministerio de Cultura e inscritos en el Registro correspondiente.

No obstante, en el supuesto de Zonas Arqueológicas y Sitios o Conjuntos Históricos, la exención no alcanzará a cualesquiera clase de bienes inmuebles ubicados dentro del perímetro de delimitación, sino, exclusivamente, a los que reúnan las siguientes condiciones:

- Zona arkeologikoetan ekainaren 25eko 16/1985 Legeko 20. artikuluan aipatzen den hirigintza planeamenduko tresnaren arabera babes berezia dutenei soilik aplikatuko zaie salbuespena.

- Gune edo multzo historikoetan ondokoei baizik ez zaie aplikatuko: gutxienez berrogeita hamar urteko antzinatasuna dutenei, baldin eta Hirigintza Plangintzako Araudiko 86. artikuluan ezarritako katalogoan badaude eta ekainaren 25eko 16/1985 Legeko 21. artikuluan ezarritakoaren arabera erabateko babesa badute.

Hiru. Autonomia erkidego baten ondare historikoan dauden ondasunak, hain zuzen ere berariazko arauetan ezarritakoaren arabera halakotzat kalifikatu direnak eta hala inskribatu direnak.

Lau. Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeko 37. artikuluko 3. idatz zatian eta Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legeko 26. artikuluko 4. idatz zatian xedatutakoaren ondorioetarako ezartzen diren kopuruetara heltzen ez den balioa duten artelanak eta antzinako gauzak.

Bost. Foru arau honetako 21. artikuluan aipatzen diren artelanak eta antzinako gauzak, baldin eta jabeek gordailu iraunkor moduan (hiru urterako gutxienez) lagatzen badizkiete museoei edo irabazteko asmorik gabeko kultura erakundeei jendaurrean erakusteko, gordailatuta dauden artean, eta artisten lanak, beraien ondarean dauden artean.

Sei. Etxeko ostilamendua, hau da, zergadunen gauza pertsonalak eta etxeko gauzak, etxeko tresnak eta erabilera partikularreko gainerako ondasun higigarriak, foru arau honetako 20. eta 21. artikuluetan aipatzen diren ondasunak izan ezik.

Zazpi. Tresna hauetako eskubide ekonomikoak:

a) Borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeetako bazkide oso edo arrunten eskubide kontsolidatuak eta onuradunen eskubide ekonomikoak.

b) Pentsio planen partaideen eskubide finkatuak eta pentsio planen onuradunen eskubide ekonomikoak (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003ko ekainaren 3ko 2003/41/EE Zuzentarauan, enpleguko pentsio funtsen jarduerei eta gainbegiraketari buruzkoan, aipatzen diren pentsio planak barne).

c) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauan aipatzen diren bermatutako aurreikuspen planei ordaindutako primei dagozkien eskubide ekonomikoak.

d) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauan aipatzen diren enpresen gizarte aurreikuspeneko planetara zergadunek egindako ekarpenei dagozkien eskubide ekonomikoak (ekarpenetan hartzailearen kontribuzioak ere sartzen dira).

e) Enpresek beren gain hartutako pentsioen ondoriozko konpromisoak gauzatzen dituzten talde aseguruko kontratuetan, enpresaren gizarte aurreikuspeneko planak ez beste batzuetan, zergadunak ordaindutako primei dagozkien eskubide ekonomikoak, Pentsio Planei eta Funtsei buruzko Legearen testu bategineko lehenengo xedapen gehigarrian eta Legea garatu duen arautegian ezarritakoarekin bat etorriz, bai eta enpresaburuek talde aseguruko kontratuetan ordaindutako primei dagozkienak ere.

f) Mendekotasuna estaltzen duten aseguru pribatuei ordaindutako primei dagozkien eskubide ekonomikoak (aseguru horiek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 3/2007 Foru Arauko 72. artikuluko 7. idatz zatian zehaztu dira).

Zortzi. Jabetza intelektualak eta industrialak sortzen dituzten eskubideak, egilearen ondarean dauden artean; jabetza industrialak sortzen dituenak salbuetsita egoteko ezinbestekoa da jarduera ekonomiko bati loturik ez egotea.

Bederatzi. Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko apirilaren 19ko 7/1999 Foru Arauko 13. artikuluan xedatutakoaren arabera etekinak salbuetsita dituzten baloreak.

Hamar. Pertsona fisikoen ondasunak eta eskubideak, hain zuzen ere beren jarduera ekonomikorako behar dituztenak, eta erakundeetako partaidetzen jabetza osoa, jabetza soila eta haien gaineko biziarteko gozamen eskubidea (antolatutako merkatuetan kotizatzen duten erakundeak zein kotizatzen ez dutenak), foru arau honetako 6. artikuluan ezarritako betekizunak betez gero.

- En Zonas Arqueológicas, los incluidos como objeto de especial protección en el instrumento de planeamiento urbanístico a que se refiere el artículo 20 de la Ley 16/1985, de 25 junio.

- En Sitios o Conjuntos Históricos, los que cuenten con una antigüedad igual o superior a cincuenta años y estén incluidos en el Catálogo previsto en el artículo 86 del Reglamento de Planeamiento Urbanístico como objeto de protección integral en los términos previstos en el artículo 21 de la Ley 16/1985, de 25 junio.

Tres. Los bienes integrantes del Patrimonio Histórico de las Comunidades Autónomas, que hayan sido calificados e inscritos de acuerdo con lo establecido en sus normas reguladoras.

Cuatro. Los objetos de arte y antigüedades cuyo valor sea inferior a las cantidades que, en su caso, se establezcan a efectos de lo previsto en el apartado 3 del artículo 37 de la Ley 7/1990, de 3 julio, de Patrimonio Cultural Vasco y en el apartado 4 del artículo 26 de la Ley 16/1985, de 25 junio, del Patrimonio Histórico Español.

Cinco. Los objetos de arte y antigüedades comprendidos en el artículo 21 de esta Norma Foral, cuando hayan sido cedidos por sus propietarios en depósito permanente por un período no inferior a tres años a Museos o Instituciones Culturales sin fin de lucro para su exhibición pública, mientras se encuentren depositados, así como la obra propia de los artistas mientras permanezca en el patrimonio del autor.

Seis. El ajuar doméstico, entendiéndose por tal los efectos personales y del hogar, utensilios domésticos y demás bienes muebles de uso particular del contribuyente, excepto los bienes a los que se refieren los artículos 20 y 21 de esta Norma Foral.

Siete. Los derechos de contenido económico en los siguientes instrumentos:

a) Los derechos consolidados de los socios de número u ordinarios y los derechos económicos de los beneficiarios en una entidad de previsión social voluntaria.

b) Los derechos consolidados de los partícipes y los derechos económicos de los beneficiarios en un plan de pensiones, incluidos aquéllos a los que se refiere la Directiva 2003/41/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 3 de junio de 2003, relativa a las actividades y la supervisión de fondos de pensiones de empleo.

c) Los derechos de contenido económico que correspondan a primas satisfechas a los planes de previsión asegurados a que se refiere la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

d) Los derechos de contenido económico que correspondan a aportaciones realizadas por el contribuyente a los planes de previsión social empresarial a que se refiere la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, incluyendo las contribuciones del tomador.

e) Los derechos de contenido económico derivados de las primas satisfechas por el contribuyente a los contratos de seguro colectivo, distintos de los planes de previsión social empresarial, que instrumenten los compromisos por pensiones asumidos por las empresas, en los términos previstos en la Disposición Adicional Primera del Texto Refundido de la Ley de Regulación de los Planes y Fondos de Pensiones, y en su normativa de desarrollo, así como los derivados de las primas satisfechas por los empresarios a los citados contratos de seguro colectivo.

f) Los derechos de contenido económico que correspondan a primas satisfechas a los seguros privados que cubran la dependencia definidos en el apartado 7 del artículo 72 de la Norma Foral 3/2007, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

Ocho. Los derechos derivados de la propiedad intelectual o industrial mientras permanezcan en el patrimonio del autor y en el caso de la propiedad industrial no estén afectos a actividades económicas.

Nueve. Los valores cuyos rendimientos estén exentos en virtud de lo dispuesto en el artículo 13 de la Norma Foral 7/1999, de 19 de abril, del Impuesto sobre la Renta de no Residentes.

Diez. Los bienes y derechos de las personas físicas necesarios para el desarrollo de su actividad económica, y la plena propiedad, la nuda propiedad y el derecho de usufructo vitalicio sobre las participaciones en el capital o patrimonio de entidades, con o sin cotización en mercados organizados, cuando se cumplan los requisitos establecidos en el artículo 6 de la presente Norma Foral.

Hamaika. Zergadunaren ohiko etxebizitza, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 3/2007 Foru Arauko 89. artikuluko 8. idatz zatian ezarritako definizioaren arabera; salbuetsitako zenbatekoa: 400.000 euro gehienez.

6. artikulua.- Jarduera ekonomikoei lotutako ondasunak eta partaidetza batzuk salbuesteko betekizunak.

Bat. Zergatik salbuetsita daude pertsona fisikoen ondasunak eta eskubideak, hain zuzen ere beren jarduera ekonomikoa egiteko behar dituztenak, baldin eta horretan zuzenean eta modu pertsonalean jardun ohi badute, eta jarduera errenta iturri nagusia bada. Halaber, salbuetsita daude senar-emazteen eta izatezko bikoteetako (Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eratutako bikoteak) kideen ondasunak eta eskubideak, baldin eta bietako baten jarduera ekonomikoa egiteko erabiltzen badira eta idatz zati honetako betekizunak betetzen badira.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga oinarriaren ehuneko 50 gutxienez jarduera ekonomiko baten etekin garbiak badira, jarduera hori hartuko da zergadunaren errenta iturri nagusitzat. Aurreko kalkulua egiteko ez dira zenbatuko artikulu honetako bigarren idatz zatian aipatzen diren erakundeetan zuzendaritza lanak egiteagatik jasotzen diren ordainsariak, ez eta horrelako erakundeetako partaidetzen ondoriozko ordainsariak ere.

Subjektu pasibo batek jarduera bi edo gehiago egin ohi baditu zuzenean eta modu pertsonalean, jarduera horiei lotutako ondasun eta eskubide guztiak egongo dira salbuetsita; horrelakoetan, aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, jarduera guztien etekinak hartuko dira errenta iturri nagusitzat.

Bi. Zergatik salbuetsita daude erakundeen kapitaleko edo ondareko partaidetzen jabetza osoa, jabetza soila eta haien gaineko biziarteko gozamen eskubidea (antolatutako merkatuetan kotizatzen duten erakundeak zein kotizatzen ez dutenak), baldintza hauek betez gero:

a) Erakundearen jarduera nagusia ez izatea ondare higigarria edo higiezina kudeatzea. Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 24/1996 Foru Arauko 66. artikuluan ezarritakoaren arabera erakunde batek ez baditu betetzen bere aktiboaren erdia balorez osatuta dagoela edo jarduera ekonomikoei lotuta ez dagoela pentsatzeko ezarritako baldintzak, pentsatuko da ez duela kudeatzen ondare higigarria ez higiezina eta, beraz, jarduera ekonomikoa egiten duela ulertuko da.

Erakundeak aldi berean beste erakunde batzuetako partaidetzak badauzka, ondare higigarria ez duela kudeatzen pentsatzeko baldintza hauek bete behar dira: erakunde horietako bakoitzean gutxienez boto eskubideen ehuneko 5 eduki behar du zuzenean, partaidetza horiek baliabide pertsonal eta materialen antolaketa egokiaren bidez zuzendu eta kudeatu behar ditu, eta partaidetza daukan erakundeen jarduera nagusia ezin da izan ondare higigarria ez higiezina kudeatzea, aurreko paragrafoan zehaztu den bezala.

b) Erakundea sozietatea bada, Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 24/1996 Foru Arauko 66. artikuluan ezarritako kasuak ez gertatzea.

c) Zergadunak erakundearen kapitalean daukan partaidetza gutxienez ehuneko 5ekoa izatea, berarena soilik zenbatuta, edo ehuneko 20koa, berarenarekin batera ezkontidearena, izatezko bikotekidearena (Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratutako bikotea), aurrekoena, ondorengoena edo bigarren graduko albo ahaideena ere zenbatuta (ahaidetasunaren jatorria hauetako bat izan daiteke: odolkidetasuna, ezkontza, izatezko bikotearen eraketa -Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera- edo adopzioa).

d) Zergadunak erakundean zuzendaritza lanak egitea eta horren ordainsaria jarduera ekonomikoen eta norberaren lanaren etekinen guztirako zenbatekoaren ehuneko 50 baino gehiago izatea.

Once. La vivienda habitual del contribuyente, según se define en el apartado 8 del artículo 89 de la Norma Foral 3/2007, de 29 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, hasta un importe máximo de 400.000 euros.

Artículo 6.- Requisitos para la exención de bienes afectos a actividades económicas y de determinadas participaciones.

Uno. Estarán exentos del Impuesto los bienes y derechos de las personas físicas necesarios para el desarrollo de su actividad económica, siempre que ésta se ejerza de forma habitual, personal y directa por el contribuyente y constituya su principal fuente de renta. También estarán exentos los bienes y derechos comunes a ambos miembros del matrimonio o de la pareja de hecho, constituida conforme a lo dispuesto en la Ley del Parlamento Vasco 2/2003, de 7 de mayo, cuando se utilicen en el desarrollo de la actividad económica de cualquiera de los cónyuges o miembros de la pareja de hecho, anteriormente referida, siempre que se cumplan los requisitos de este apartado.

Se considerará como principal fuente de renta del contribuyente aquélla en la que al menos el 50 por ciento del importe de la base imponible del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas provenga de rendimientos netos de las actividades económicas de que se trate, teniendo presente que no se computarán, a estos efectos, ni las remuneraciones de las funciones de dirección que se ejerzan en las entidades a que se refiere el apartado Dos de este artículo, ni cualesquiera otras remuneraciones derivadas de la participación en dichas entidades.

Cuando un mismo contribuyente ejerza dos o más actividades económicas de forma habitual, personal y directa, la exención alcanzará a todos los bienes y derechos afectos a las mismas, considerándose, a efectos de lo dispuesto en el párrafo anterior, que la principal fuente de renta viene determinada por el conjunto de los rendimientos de todas ellas.

Dos. Estarán igualmente exentos del Impuesto la plena propiedad, la nuda propiedad y el derecho de usufructo vitalicio sobre las participaciones en el capital o patrimonio de entidades, con o sin cotización en mercados organizados, siempre que concurran las siguientes condiciones:

a) Que la entidad no tenga por actividad principal la gestión de un patrimonio mobiliario o inmobiliario. Se entenderá que una entidad no gestiona un patrimonio mobiliario o inmobiliario y que, por lo tanto, realiza una actividad económica cuando, por aplicación de lo establecido en el artículo 66 de la Norma Foral 24/1996, de 5 de julio, del Impuesto sobre Sociedades, dicha entidad no reúna las condiciones para considerar que más de la mitad de su activo está constituido por valores o no está afecto a actividades económicas.

Cuando la entidad participe a su vez en otras entidades, se considerará que no realiza una actividad de gestión de un patrimonio mobiliario si, disponiendo directamente al menos del 5 por ciento de los derechos de voto en cada una de dichas entidades, dirige y gestiona las participaciones mediante la correspondiente organización de medios personales y materiales, siempre que las entidades participadas no tengan a su vez como actividad principal la gestión de un patrimonio mobiliario o inmobiliario, en los términos señalados en el párrafo anterior.

b) Que, cuando la entidad revista forma societaria, no concurran los supuestos establecidos en el artículo 66 de la Norma Foral 24/1996, de 5 de julio, del Impuesto sobre Sociedades.

c) Que la participación del contribuyente en el capital de la entidad sea al menos del 5 por ciento, computado de forma individual, o del 20 por ciento conjuntamente con su cónyuge, pareja de hecho, cuando se trate de parejas de hecho constituidas conforme a lo dispuesto en la Ley del Parlamento Vasco 2/2003, de 7 de mayo, ascendientes, descendientes o colaterales de segundo grado, ya tenga su origen en el parentesco en la consanguinidad, en la afinidad, en la que resulte de la constitución de la pareja de hecho por aplicación de la Ley del Parlamento Vasco 2/2003, de 7 de mayo, o en la adopción.

d) Que el contribuyente ejerza efectivamente funciones de dirección en la entidad, percibiendo por ello una remuneración que represente más del 50 por ciento de la totalidad de los rendimientos de actividades económicas y del trabajo personal.

Aurrekoa kalkulatzeko, artikulu honetako lehenengo idatz zatian aipatzen diren jarduera ekonomikoen etekinak ez dira sartuko jarduera ekonomikoen eta norberaren lanaren etekinetan. Erakundeko partaidetza aurreko letran aipatutako pertsonaren batekin edo pertsona batzuekin batera edukiz gero, zuzendaritza lanak gutxienez ahaidetasun taldeko pertsona batek egin behar ditu, bai eta haren ondoriozko ordainsariak jaso ere. Hori gorabehera, gerta liteke taldeko pertsona guztiek edukitzea salbuespenerako eskubidea.

Pertsona batek hainbat erakundetan badauka partaidetza eta partaidetza guztiek betetzen badituzte idatz zati honetan ezarritako baldintzak, letra honetan ehunekoaren konputuaz ezarritako betekizuna banaka aplikatu behar zaio erakunde bakoitzari. Erakunde bakoitzeko zuzendaritza lanen ordainsariei zergadunaren lanaren eta jarduera ekonomikoen etekinen zenbatekoan dagokien ehunekoa kalkulatzeko ez dira kontuan hartu behar beste erakundeetako zuzendaritza lanen etekinak.

Zuzendaritza lanak dira lehendakariek, zuzendari nagusiek, kudeatzaileek, administratzaileek, sail zuzendariek, kontseilariek eta administrazio kontseiluko edo antzeko organoetako kideek egiten dituztenak (modu sinesgarrian frogatu behar da kontratuaren edo izendapenaren bidez); ezinbestekoa da kargu horietan aritzean enpresaren erabakietan esku hartzea.

Hurrengo seigarren idatz zatian xedatutakoa gorabehera, salbuespena ez zaio aplikatuko partaidetzen balioaren zati bati (balioa foru arau honetako 17. eta 18. artikuluetan ezarritako erregelen arabera zehaztu behar da), hain zuzen ere jarduera ekonomikoa egiteko behar diren aktiboen balioari (jardueraren ondoriozko zorrak ez beste guztiak kenduta). Erakundearen aktiboen eta zorren balioak kalkulatzeko haren kontabilitatea hartuko da aintzat (sozietatearen ondarearen benetako egoera islatzen badu) eta foru arau honetako 17. eta 18. artikuluetan eta 27. artikuluko hirugarren idatz zatian ezarritako erregelak aplikatu behar dira. Kontabilitaterik egon ezean, edo kontabilitateak ez badu islatzen zehatz-mehatz erakundearen ondarearen benetako egoera, balioak foru arau honetan ezarritakoaren arabera kalkulatuko dira.

Hiru. Artikulu honetan aipatzen diren ondare elementuen titularra adingabekoa bada edo ezgaituta badago, legezko ordezkariak bete beharko ditu eskatzen diren betekizunak.

Lau. Artikulu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, aktibo bat ezinbestekoa da jarduera ekonomiko baterako berari lotuta badago Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 29ko 3/2007 Foru Arauko 27. artikuluan ezarritakoaren arabera; salbuespena: artikulu horretako 1. idatz zatiko c) letrako azken tartekian aipatzen diren aktiboak (hauek ere jarduera ekonomiko bati lotuta egon daitezke).

Bost. Artikulu honetako salbuespena aplikatzeko betekizunak eta baldintzak Zergaren sortzapenean bete behar dira, hurrengo seigarren idatz zatiko a) eta b) letretan batez besteko plantillari buruz xedatutako kasuetan izan ezik.

Sei. Salbuespena inolaz ere ez zaie aplikatuko ondokoei:

a) Aurreko lehenengo idatz zatian ezarritakoaren arabera salbuetsita dauden ondasun higiezinak, baldin eta hirugarrenei laga bazaizkie edo haien gaineko eskubide errealak eratu badira. Horren barruan sartzen dira ondasun horiek errentan edo azpierrentan ematea eta ondasunok erabiltzeko edo gozatzeko eskubideak edo ahalmenak eratzea, izena eta izaera gorabehera; salbuespena: higiezinen errentamenduko jarduera ekonomiko bati lotuta dauden ondasun higiezinak, baldin eta zergadunak jarduera horretarako erabiltzen duen plantillan batez beste hamar langile badaude urtean (besteren konturako langileak, lansaio osokoak eta dedikazio esklusiboa dutenak).

b) Partaidetzen balioan jarduera ekonomiko bati lotuta ez dauden ondasun higiezinei dagokien zenbatekoa.

A efectos del cálculo anterior, no se computarán entre los rendimientos de actividades económicas y del trabajo personal los rendimientos de la actividad económica a que se refiere el apartado Uno de este artículo. Cuando la participación en la entidad sea conjunta con alguna o algunas de las personas a las que se refiere la letra anterior, las funciones de dirección y las remuneraciones derivadas de la misma deberán de cumplirse al menos en una de las personas del grupo de parentesco, sin perjuicio de que todas ellas tengan derecho a la exención.

Cuando una misma persona sea directamente titular de participaciones en varias entidades y en ellas concurran las condiciones previstas en este apartado, el cómputo del porcentaje a que se refiere esta letra d) se efectuará de forma separada para cada una de dichas entidades. A tal efecto, para la determinación del porcentaje que representa la remuneración por las funciones de dirección ejercidas en cada entidad respecto de la totalidad de los rendimientos del trabajo y por actividades económicas del contribuyente, no se incluirán los rendimientos derivados de las funciones de dirección en las otras entidades.

Se considerarán funciones de dirección, que deberán acreditarse fehacientemente mediante el correspondiente contrato o nombramiento, los cargos de Presidente, Director General, Gerente, Administrador, Directores de Departamento, Consejeros y miembros del Consejo de Administración u órgano de administración equivalente, siempre que el desempeño de cualquiera de estos cargos implique una efectiva intervención en las decisiones de la empresa.

Sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado seis siguiente, la exención no alcanzará a la parte del valor de las participaciones, determinado conforme a las reglas que se establecen en los artículos 17 y 18 de esta Norma Foral, que se corresponda con el valor de los activos no necesarios para el ejercicio de la actividad económica, minorado en el importe de las deudas no derivadas de la misma. Tanto el valor de los activos como el de las deudas de la entidad, será el que se deduzca de su contabilidad y de la aplicación de las reglas contenidas en los artículos 17, 18 y en el apartado tres del artículo 27 de la presente Norma Foral, siempre que aquélla refleje fielmente la verdadera situación patrimonial de la entidad, determinándose todos los valores, en defecto de contabilidad o cuando ésta no refleje fielmente la verdadera situación patrimonial de la entidad, de acuerdo con lo previsto en esta Norma Foral.

Tres. En el supuesto de menores de edad o incapacitados que sean titulares de los elementos patrimoniales a que se refiere este artículo, los requisitos exigidos se considerarán cumplidos cuando se ajusten a los mismos sus representantes legales.

Cuatro. A efectos de lo previsto en el presente artículo, se entenderá que un activo es necesario para el desarrollo de una actividad económica cuando se trate de un elemento afecto a la misma, según establece el artículo 27 de la Norma Foral 3/2007, de 29 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, salvo en lo que se refiere a los activos previstos en el inciso final de la letra c) de su apartado 1, que, en su caso, podrán estar afectos a la actividad económica.

Cinco. Los requisitos y condiciones para que resulte de aplicación la exención a que se refiere este artículo habrán de referirse al momento en el que se produzca el devengo de este Impuesto, a excepción de lo dispuesto, respecto a la plantilla media, en las letras a) y b) del apartado seis siguiente.

Seis. En ningún caso será de aplicación esta exención a:

a) Los bienes inmuebles que resultaran exentos por aplicación del apartado Uno anterior, que hayan sido objeto de cesión o de constitución de derechos reales que recaigan sobre los mismos, comprendiendo su arrendamiento, subarrendamiento o la constitución o cesión de derechos o facultades de uso o disfrute sobre los mismos, cualquiera que sea su denominación o naturaleza, salvo que se encuentren afectos a una actividad económica de arrendamiento de inmuebles para la que el contribuyente cuente con, al menos, una plantilla media anual de diez trabajadores empleados por cuenta ajena a jornada completa y con dedicación exclusiva a esa actividad.

b) La parte del valor de las participaciones que se corresponda con bienes inmuebles no afectos a explotaciones económicas.

Aurreko bigarren idatz zatian aipatzen diren partaidetzen balioan ondasun higiezinei dagokien zenbatekoa, foru arau honetako 18. artikuluko lehenengo idatz zatiko azken paragrafoan ezarritakoarekin bat etorriz, baldin eta ondasun higiezinak hirugarrenei laga bazaizkie edo haien gaineko eskubide errealak eratu badira (honen barruan sartzen dira ondasun horiek errentan edo azpierrentan ematea eta ondasunok erabiltzeko edo gozatzeko eskubideak edo ahalmenak eratzea, izena eta izaera gorabehera; salbuespena: erakundearen plantillan batez beste hamar langile badaude urtean, hain zuzen ere besteren konturako langileak, lansaio osokoak eta dedikazio esklusiboa dutenak).

Idatz zati honetako a) eta b) letretan aipatzen den plantillako batez besteko langile kopurua kalkulatzeko ondokoak eduki behar dira kontuan: langileek aurreko paragrafoan eta aurreko a) letran ezarritako betekizunak bete behar dituzte, zergadunak kapitalean gutxienez ehuneko 25eko partaidetza daukan erakunde batean egon behar dira enplegatuta, eta partaidetzak artikulu honetan ezarritako betekizunak bere behar ditu. Ildo honetatik, batez besteko plantilla kalkulatzeko kontuan hartu beharreko erakundeak zehazteko ez beste ezertarako, artikulu honetako bigarren idatz zatiko a) eta b) letretan ezarritako betekizunak zergadunak zuzenean zein zeharka partaidetza daukan erakunde guzti-guztietan bete behar dira, eta artikulu honetako bigarren idatz zatiko d) letran ezarritako betekizuna zergadunak zuzeneko partaidetza daukan erakundeetan soilik bete behar da.

b) letra honetan ezarritako salbuespena ez da aplikatuko zergadunak Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 24/1996 Foru Arauko VIII. tituluko XVIII. kapituluan ezarritako araubide berezia dagoen erakunde bateko partaidetza badauka.

c) Aurreko bigarren idatz zatian aipatzen diren partaidetzen balioan bigarren mailako merkatuetan kotizatzen duten baloreei, talde inbertsioko erakundeetako partaidetzei eta foru arau honetako 20. artikuluan aipatzen diren ibilgailuei, itsasontziei eta aireontziei dagokien zenbatekoa, foru arau honetako 18. artikuluko lehenengo idatz zatiko azken paragrafoan ezarritakoarekin bat etorriz.

Letra honetan ezarritako salbuespena ez zaio aplikatuko partaidetzen balioan bigarren mailako merkatuetan kotizatzen duten baloreei dagokien zenbatekoari, baldin eta zergadunak gutxienez boto eskubideen ehuneko 5 badauka eta partaidetzak baliabide pertsonal eta materialen antolaketa egokiaren bidez zuzentzen eta kudeatzen baditu.

d) Talde inbertsioko erakundeetako partaidetzak.

III. KAPITULUA

ZERGADUNAK

7. artikulua.- Zergadunak.

Foru arau honetako 2. artikuluko lehenengo idatz zatian zehaztu da nortzuk diren zerga honen zergadunak.

8. artikulua.- Espainian egoiliar ez diren zergadunen ordezkariak.

Bat. Espainiako lurraldean egoiliar ez diren zergadunek, 2. artikuluko lehenengo idatz zatiko b) letran aipatzen direnek, establezimendu iraunkor baten bidez jarduten badute edo Espainiako lurraldean duten ondarearen zenbatekoa eta ezaugarriak direla eta Zerga Administrazioak eskatuz gero, egoitza Araban daukan pertsona fisiko edo juridiko bat izendatu beharko dute euren ordezkaria izan dadin zerga honekiko betebeharretarako Zerga Administrazioaren aurrean. Gainera, Zergaren autolikidazioa egiteko epealdia amaitu baino lehen izendapenaren berri eman beharko diote, bai eta behar bezala frogatu ere.

Bi. Lehenengo idatz zatian ezarritako betebeharrak ez betetzea zergen arloko arau haustea izango da, eta 150,25 - 6.010,12 euro bitarteko isunarekin zehatuko da.

Hiru. Foru arau honetako 2. artikuluko lehenengo idatz zatiko b) letran aipatzen diren ez-egoiliarren ondasunen edo eskubideen gordailuzainak edo kudeatzaileak erantzukizun solidarioa edukiko du gordailatuta dauzkan edo kudeatzen dituen ondasunak edo eskubideak direla eta

La parte del valor de las participaciones a que se refiere el apartado Dos anterior que se correspondan con bienes inmuebles, de conformidad con lo previsto en el último párrafo del apartado Uno del artículo 18 de la presente Norma Foral, cuando dediquen los citados inmuebles a su cesión o a la constitución de derechos reales que recaigan sobre los mismos, comprendiendo su arrendamiento, subarrendamiento o la constitución o cesión de derechos o facultades de uso o disfrute sobre los mismos, cualquiera que sea su denominación o naturaleza, salvo que la entidad tenga, al menos, una plantilla media anual de diez trabajadores empleados por cuenta ajena a jornada completa y con dedicación exclusiva a esa actividad.

A efectos del cómputo de la plantilla media a que se refieren las letras a) y b) de este apartado seis, deberá tenerse en cuenta el personal que cumpla los requisitos establecidos en el párrafo anterior y en la letra a) anterior, y que se encuentre empleado en el conjunto de entidades en las que el contribuyente tenga una participación directa o indirecta superior al 25 por ciento del capital de las mismas, siempre que las citadas participaciones cumplan los requisitos establecidos en el presente artículo. En este sentido, y a los exclusivos efectos de determinar el conjunto de entidades que pueden tomarse en consideración para determinar la plantilla media, los requisitos establecidos en las letras a) y b) del apartado Dos de este artículo deberán cumplirse en todas y cada una de las entidades en las que el contribuyente participe de manera directa o indirecta, y el requisito establecido en la letra d) del apartado Dos de este artículo deberá cumplirse exclusivamente en las entidades en las que el contribuyente participe de forma directa.

b) No será de aplicación la exclusión prevista en esta letra b) en los supuestos de participaciones en entidades que apliquen el régimen especial establecido en el Capítulo XVIII del Título VIII de la Norma Foral 24/1996, de 5 de julio, del Impuesto sobre Sociedades.

c) La parte del valor de las participaciones a que se refiere el apartado Dos anterior que se correspondan con valores cotizados en mercados secundarios, participaciones en instituciones de inversión colectiva y vehículos a que se refiere el artículo 20 de esta Norma Foral, embarcaciones y aeronaves, de conformidad con lo previsto en el último párrafo del apartado Uno del artículo 18 de la presente Norma Foral.

No será de aplicación la exclusión prevista en esta letra c) respecto de la parte del valor de las participaciones que se corresponda con valores cotizados en mercados secundarios respecto de los que disponga, al menos, del 5 por ciento de los derechos de voto dirigiendo y gestionando las participaciones mediante la correspondiente organización de medios personales y materiales.

d) Las participaciones en instituciones de inversión colectiva.

CAPÍTULO III

CONTRIBUYENTES

Artículo 7.- Contribuyentes.

Son contribuyentes de este Impuesto las personas físicas a que se refiere el apartado Uno del artículo 2 de esta Norma Foral.

Artículo 8.- Representantes de los contribuyentes no residentes en España.

Uno. Los contribuyentes no residentes en territorio español a que se refiere la letra b) del apartado Uno del artículo 2 vendrán obligados a nombrar una persona física o jurídica con domicilio en Álava para que les represente ante la Administración tributaria en relación con sus obligaciones por este Impuesto, cuando operen por mediación de un establecimiento permanente o cuando por la cuantía y características del patrimonio del contribuyente situado en territorio español, así lo requiera la Administración tributaria, y a comunicar dicho nombramiento, debidamente acreditado, antes del fin del plazo de autoliquidación del Impuesto.

Dos. El incumplimiento de las obligaciones a que se refiere el apartado Uno anterior constituirá infracción tributaria, sancionable con multa de 150,25 a 6.010,12 euros.

Tres. En todo caso, el depositario o gestor de los bienes o derechos de los contribuyentes no residentes a los que se refiere la letra b) del apartado Uno del artículo 2 de esta Norma Foral, responderá solidariamente del ingreso de la deuda tributaria correspondiente

zerga honengatik sortzen diren zorrak eta zehapenak (halakorik badago) ordaintzeko, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorreko 42. artikuluko 4. idatz zatian ezarri den bezala.

9. artikulua.- Ondare elementuen titulartasuna.

Ondasunak eta eskubideak zergadunei egozteko kasu bakoitzean titulartasun juridikoari buruz aplikatu ahal diren arauak hartuko dira kontuan, bai eta zergadunek aurkeztu edo Administrazioak aurkitutako frogak ere.

Ondasunen eta eskubideen titulartasun juridikoaz senar-emazteen edo izatezko bikoteen (maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratutako bikoteak), kasukoan kasukoa, araubide ekonomikoari buruzko xedapenetan ezarritako arauak eta familiako kideen arteko ondare harremanei kasu bakoitzean aplikatu beharreko legeria zibilean ezarritakoak aplikatuko dira.

Araubide ekonomikoko xedapenen edo itunen arabera bi ezkontideenak edo izatezko bikoteko bi kideenak (Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eratutako bikotea) diren ondasunak eta eskubideak erdi bana egotziko zaizkie, partaidetza kuotak beste batzuk direla frogatu ezean.

Ondasunen edo eskubideen titulartasuna ondo frogatzen ez bada, Zerga Administrazioak zerga erregistro batean edo beste erregistro publikoren batean halakotzat agertzen dena hartu ahal izango du titulartzat.

Kargak, zergak, zorrak eta betebeharrak aurreko paragrafoetan ezarritako erregelen eta irizpideen arabera egotziko zaizkie zergadunei.

10. artikulua.- Prezio geroratuarekin edo jabariaren erreserba eginez eskuratutako ondasunak edo eskubideak.

Bat. Ondasunak edo eskubideak bere osoan edo zati batean geroratutako kontraprestazioz eskuratzen direnean, Zergari buruzko arauen arabera ondare elementuek duten balioa osorik egotziko zaio eskuratzaileari, eta honek bere zorretan sartuko du geroratutako kontraprestazio zatia. Eskualdatzaileak, beste alde batetik, bere ondareko eskubideetan sartuko du geroratutako kontraprestazio zatiari dagokion kreditua.

Bi. Ondasunak jabariaren erreserba eginez saltzen badira, eskuratzailearen eskubidearen zenbatekoa Zergaren sortzapenera arte emandako kopuru guztien batura izango da jabetza eskualdatzen ez zaion bitartean. Kopuru horiek saltzailearen zorrak izango dira, eta berari egotziko zaio ondare elementuaren balioa (Zergari buruzko arauak aplikatuz kalkulatuta).

IV. KAPITULUA

ZERGA OINARRIA

11. artikulua.- Kontzeptua.

Bat. Zerga honen zerga oinarria zergadunaren ondare garbiaren balioa da.

Bi. Ondare garbia kalkulatzeko ondoko bi kopuruen arteko kenketa egin behar da:

a) Zergaduna titular den ondasunen eta eskubideen balioa (hau kalkulatzeko hurrengo artikuluetako erregelak aplikatu behar dira).

b) Zama eta karga errealak, ondasunen edo eskubideen balioa murrizten badute, eta zergadunak bere gain hartu beharreko zorrak eta betebehar pertsonalak.

Hiru. Aurreko idatz zatian ezarritakoa gorabehera, ondare garbia kalkulatzean ez dira kenduko salbuetsitako ondasunei dagozkien zamak eta kargak.

Lau. Zerga ordaindu behar erreala badago, Espainiako lurraldean dauden ondasunen edo bertan baliatu ahal diren edo bete behar diren eskubideen gaineko kargak eta zamak soilik kendu ahal izango dira, eta horiekin batera ondasunetan inbertitutako kapitalen ondoriozko zorrak ere bai.

12. artikulua.- Ondasun higiezinak.

Bat. Hiri edo landa ondasun higiezinen zerga oinarria beraien katastroko balioa izango da.

a este Impuesto y, en su caso, de las sanciones, por los bienes o derechos depositados o cuya gestión tenga encomendada, en los términos previstos en el apartado 4 del artículo 42 de la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava.

Artículo 9.- Titularidad de los elementos patrimoniales.

Los bienes y derechos se atribuirán a los contribuyentes según las normas sobre titularidad jurídica aplicables en cada caso y en función de las pruebas aportadas por aquéllos o de las descubiertas por la Administración.

En su caso, serán de aplicación las normas sobre titularidad jurídica de los bienes y derechos contenidas en las disposiciones reguladoras del régimen económico del matrimonio o de la pareja de hecho constituida conforme a lo dispuesto en la Ley del Parlamento Vasco 2/2003, de 7 de mayo, así como en los preceptos de la legislación civil aplicables en cada caso a las relaciones patrimoniales entre los miembros de la familia.

La titularidad de los bienes y derechos que, conforme a las disposiciones o pactos reguladores del correspondiente régimen económico del matrimonio o de la pareja de hecho constituida conforme a lo dispuesto en la Ley del Parlamento Vasco 2/2003, de 7 de mayo, sean comunes a ambos cónyuges o miembros de la citada pareja de hecho, respectivamente, se atribuirá por mitad a cada uno de ellos, salvo que se justifique otra cuota de participación.

Cuando no resulte debidamente acreditada la titularidad de los bienes o derechos, la Administración tributaria podrá considerar como titular a quien figure como tal en un registro fiscal u otros de carácter público.

Las cargas, gravámenes, deudas y obligaciones se atribuirán a los contribuyentes según las reglas y criterios de los párrafos anteriores.

Artículo 10.- Bienes o derechos adquiridos con precio aplazado o reserva de dominio.

Uno. Cuando se trate de la adquisición de bienes o derechos con contraprestación aplazada, en todo o en parte, el valor del elemento patrimonial que resulte de las normas del Impuesto, se imputará íntegramente al adquirente del mismo, quien incluirá entre sus deudas la parte de la contraprestación aplazada. Por su parte, el transmitente incluirá entre los derechos de su patrimonio el crédito correspondiente a la parte de la contraprestación aplazada.

Dos. En caso de venta de bienes con reserva de dominio, mientras la propiedad no se transmita al adquirente, el derecho de éste se computará por la totalidad de las cantidades que hubiera entregado hasta la fecha del devengo del Impuesto, constituyendo dichas cantidades deudas del transmitente, que será a quien se impute el valor del elemento patrimonial que resulte de las normas del Impuesto.

CAPÍTULO IV

BASE IMPONIBLE

Artículo 11.- Concepto.

Uno. Constituye la base imponible de este Impuesto el valor del patrimonio neto del contribuyente.

Dos. El patrimonio neto se determinará por diferencia entre:

a) El valor de los bienes y derechos de que sea titular el contribuyente, determinado conforme a las reglas de los artículos siguientes, y

b) Las cargas y gravámenes de naturaleza real, cuando disminuyan el valor de los respectivos bienes o derechos y las deudas u obligaciones personales de las que deba responder el contribuyente.

Tres. No obstante lo dispuesto en el apartado anterior, no se deducirán, para la determinación del patrimonio neto, las cargas y gravámenes que correspondan a los bienes exentos.

Cuatro. En los supuestos de obligación real de contribuir, sólo serán deducibles las cargas y gravámenes que afecten a los bienes y derechos que radiquen en territorio español o puedan ejercitarse o hayan de cumplirse en dicho territorio, así como las deudas por capitales invertidos en los indicados bienes.

Artículo 12.- Bienes inmuebles.

Uno. Los bienes inmuebles de naturaleza urbana o rústica se computarán por su valor catastral.

Zerga sortzen denean ondasun higiezin batek ez badauka katastroko balioa ezarrita, edo atzerrian badago, beraren eskuraketa balioa hartuko da zerga oinarritzat, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 29ko 3/2007 Foru Arauko 47. artikuluko 2. idatz zatian aipatzen diren koefizienteak aplikatuz eguneratu ondoren.

Bi. Eraikitzen ari diren ondasun higiezinen ondare balioa kalkulatzeko ondoko kopuruak hartu behar dira kontuan: Zerga sortu arte eraikuntzan benetan inbertitutako kopuruak eta orubearen ondare balioa, artikulu honetan ezarritakoaren arabera zehaztua. Jabetza horizontalaren kasuan, orubearen balioari dagokion zati proportzionala tituluan finkatutako ehunekoaren arabera kalkulatuko da.

Hiru. Jabetza anitzeko kontratuen bitartez, aldi baterako jabetza kontratuen bitartez edo antzeko formulen bitartez eskuratutako ondasun higiezinen gaineko eskubideak baloratzeko erregela hauek aplikatuko dira:

a) Eskubideok higiezinaren titulartasun partziala badakarte, aurreko lehenengo idatz zatiko erregelak.

b) Higiezinaren titulartasun partziala ez badakarte, ziurtagiriak edo bestelako titulu adierazgarriak eskuratzeko prezioa hartuko da baliotzat.

Turismo erabilerako ondasunak txandaka aprobetxatzeko kontratuei, iraupen luzeko opor produktuak eskuratzeko kontratuei, birsaltze eta truke kontratuei eta zerga arauei uztailaren 6ko 4/2012 Legean ezarritako eskubideen balioa beraien eskuraketa prezioa izango da, izaera gorabehera.

13. artikulua.- Jarduera ekonomikoak.

Pertsona fisikoen ondasunak eta eskubideak jarduera ekonomikoei atxikita badaude, haien zerga oinarritzat kontabilitatean islatzen den balioa hartuko da, hain zuzen ere aktiboaren eta pasiboaren arteko diferentzia, baldin eta kontabilitatea Merkataritza Kodean xedatutakoarekin bat badator. Salbuespena: ondasun higiezinen, ibilgailuen, itsasontzien eta aireontzien zerga oinarria foru arau honetako 12. artikuluan eta 20. artikuluan, hurrenez hurren, xedatutakoaren araberako balioa izango da.

Ondasunak jarduera ekonomiko bati lotuta daudenez ebazteko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko arauak aplikatuko dira.

Kontabilitaterik ezean, edo kontabilitatea ez badator bat Merkataritza Kodean xedatutakoarekin, zerga honi buruzko gainerako arauak aplikatuko dira balioak kalkulatzeko.

14. artikulua.- Kontu korronteko edo aurrezki kontuko gordailuak, agerikoak edo eperakoak.

Kontu korronteko edo aurrezki kontuko gordailuak, agerikoak edo eperakoak, hirugarrengoen konturakoak ez direnak, bai eta diruzaintzako kudeaketa kontuak, finantza kontuak eta antzekoak ere, Zergaren sortzapen egunean duten saldoa kontuan hartuta konputatuko dira, kasu honetan izan ezik: sortzapen eguneko saldoa urteko azken hiruhilekoko batez besteko saldoa baino gutxiago bada, azken saldo hori aplikatuko da.

Batez besteko saldoa kalkulatzeko ez dira konputatuko zergadunaren ondarean dauden ondasunak eta eskubideak eskuratzeko, ondareko beste kontu batzuetara eramateko edo zorrak kitatzeko edo murrizteko ateratako funtsak.

Mailegu edo kreditu batek sortutako zor baten zenbatekoa urteko azken hiruhilekoan lehenengo paragrafoan adierazitako konturen batean sartu bada, ez da kontuan hartuko batez besteko saldoa kalkulatzeko, ez eta zor bezala kenduko ere.

15. artikulua.- Kapital propioak hirugarrenei laga zaizkiela adierazten duten baloreak, merkatu antolatuetan negoziatzen direnak.

Kapital propioak hirugarrenei laga izana adierazten duten baloreak, merkatu antolatuetan negoziatzen direnak, baloratzeko Zergaren sortzapenean duten negoziazio balioa hartuko da aintzat, izendapena, ordezkaritza eta lortutako etekinen izaera gorabehera.

Si los bienes inmuebles no dispusieran de valor catastral a la fecha de devengo del Impuesto o estuvieran situados en el extranjero, se computarán por su valor de adquisición, actualizado de conformidad con los coeficientes a que se refiere el apartado 2 del artículo 47 de la Norma Foral 3/2007, de 29 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

Dos. Cuando los bienes inmuebles estén en fase de construcción, se estimará como valor patrimonial las cantidades que efectivamente se hubieran invertido en dicha construcción hasta la fecha del devengo del Impuesto, además del correspondiente valor patrimonial del solar según lo establecido en el presente artículo. En caso de propiedad horizontal, la parte proporcional en el valor del solar se determinará según el porcentaje fijado en el título.

Tres. Los derechos sobre bienes inmuebles adquiridos en virtud de contratos de multipropiedad, propiedad a tiempo parcial o fórmulas similares, se valorarán según las siguientes reglas:

a) Si suponen la titularidad parcial del inmueble, según las reglas del apartado Uno anterior.

b) Si no comportan la titularidad parcial del inmueble, por el precio de adquisición de los certificados u otros títulos representativos de los mismos.

Los derechos contemplados en la Ley 4/2012, de 6 de julio, de contratos de aprovechamiento por turno de bienes de uso turístico, de adquisición de productos vacacionales de larga duración, de reventa y de intercambio y normas tributarias, cualquiera que sea su naturaleza, se valorarán, de acuerdo con su precio de adquisición.

Artículo 13.- Actividades Económicas.

Los bienes y derechos de las personas físicas afectos a actividades económicas se computarán por el valor que resulte de su contabilidad, por diferencia entre el activo y el pasivo, siempre que aquélla se ajuste a lo dispuesto en el Código de Comercio, excepto en lo que se refiere a bienes inmuebles, vehículos, embarcaciones y aeronaves, que se computarán en todo caso por el valor que resulte de lo dispuesto en los artículos 12 y 20, respectivamente, de esta Norma Foral.

Se entenderán afectos a actividades económicas los bienes de acuerdo con las normas del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

En defecto de contabilidad, o cuando ésta no se ajuste a lo dispuesto en el Código de Comercio, la valoración será la que resulte de la aplicación de las demás normas de este Impuesto.

Artículo 14.- Depósitos en cuenta corriente o de ahorro, a la vista o a plazo.

Los depósitos en cuenta corriente o de ahorro, a la vista o a plazo, que no sean por cuenta de terceros, así como las cuentas de gestión de tesorería y cuentas financieras o similares, se computarán por el saldo que arrojen en la fecha del devengo del Impuesto, salvo que aquél resultase inferior al saldo medio correspondiente al último trimestre del año, en cuyo caso se aplicará este último.

Para el cálculo de dicho saldo medio no se computarán los fondos retirados para la adquisición de bienes y derechos que figuren en el patrimonio del contribuyente, para su traslado a otras cuentas que figuren en su patrimonio o para la cancelación o reducción de deudas.

Cuando el importe de una deuda originada por un préstamo o crédito haya sido objeto de ingreso en el último trimestre del año en alguna de las cuentas a que se refiere el párrafo primero, no se computará para determinar el saldo medio y tampoco se deducirá como tal deuda.

Artículo 15.- Valores representativos de la cesión a terceros de capitales propios, negociados en mercados organizados.

Los valores representativos de la cesión a terceros de capitales propios, negociados en mercados organizados, se computarán según su valor de negociación en el momento del devengo del Impuesto, cualquiera que sea su denominación, representación y la naturaleza de los rendimientos obtenidos.

16. artikulua.- Kapital propioak hirugarrenei laga izana adierazten duten gainerako baloreak.

Kapital propioak hirugarrenei laga izana adierazten duten baloreak, aurreko artikuluan aipatutakoak ez beste batzuk, baloratzeko balio nominala hartuko da aintzat, behar den kasuetan amortizazio primak edo diru itzulketako primak gehituta, izendapena, ordezkaritza eta lortutako etekinen izaera gorabehera.

17. artikulua.- Merkatu antolatuetan negoziatutako edozein erakunderen funts propioetako partaidetza adierazten duten baloreak.

Bat. Merkatu antolatuetan negoziatutako erakundeen kapital sozialaren edo funts propioen akzioak eta partaidetzak, talde inbertsioko erakundeenak izan ezik, Zergaren sortzapenean duten negoziazio balioaren arabera konputatuko dira.

Bi. Merkatu antolatuetan kotizatzen duten erakunde juridikoek emandako kotizazio ofizialean onartu gabeko akzio berriak harpidetzen badira, akzioen baliotzat harpidetza aldiko aurreko tituluen azken negoziazio balioa hartuko da.

Hiru. Ordaintzeko dauden kapital zabalkuntzei dagokienez, akzioak baloratzeko aurreko arauak aplikatuko dira, erabat ordainduta baleude bezala, ordaintzeko dagoen zatia zergadunaren zor moduan sarturik.

18. artikulua.- Edozein motatako erakundeen funts propioetako partaidetza adierazten duten gainerako baloreak.

Bat. Aurreko artikuluan aipatutakoak ez beste akzio eta partaidetza batzuen kasuan, balorazioa onartutako azken balantzeko balio teorikoa izango da.

Hala ere, zerga honen zerga oinarriak kalkulatzeko, ondasun higiezinen, bigarren mailako merkatuetan kotizatzen duten baloreen, talde inbertsioko erakundeetako partaidetzen eta foru arau honetako 20. artikuluan aipatzen diren ibilgailuen, itsasontzien eta aireontzien kontabilitateko balio garbia gabe hauxe hartuko da kontuan, hurrenez hurren: foru arau honetako 12. artikuluan, 15. artikuluan, 17. artikuluan, artikulu honetako bigarren idatz zatian eta 20. artikuluan ezarritakoaren arabera kalkulatutako balioa. Gainera, kontuan eduki beharko da zergadunak zeharka, beste erakunde batzuetako partaidetzen bitartez, dauzkan ondasun higiezinen, bigarren mailako merkatuetan kotizatutako baloreen, talde inbertsioko erakundeetako partaidetzen, eta ibilgailu, itsasontzi eta aireontzien balioa, eta erregela hau aplikatuko zaie, baldin eta kapitaleko partaidetza ehuneko 5ekoa bada gutxienez. Honelakoetan zergadunaren partaidetza ez ezik ondokoenak ere zenbatuko dira: ezkontidearena edo izatezko bikotekidearena (Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratutako bikotea), aurrekoenak, ondorengoenak edo bigarren graduko albo ahaideenak (ahaidetasunaren jatorria hauetako bat izan daiteke: odolkidetasuna, ezkontza, izatezko bikotearen eraketa edo adopzioa), eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 24/1996 Foru Arauko 16. artikuluan ezarritakoaren arabera lotutako pertsona eta erakundeenak.

Bi. Talde inbertsioko erakundeen sozietate kapital edo ondare funtseko akzioak eta partaidetzak Zerga sortzen deneko likidazio balioaren arabera konputatuko dira. Horretarako, balantzean sartutako aktiboak berariazko legerian ezarritakoaren arabera baloratu behar dira eta hirugarrenekiko betebeharrak kendu daitezke.

Hiru. Kooperatiben kapital sozialean bazkideek edo elkartekideek duten partaidetza baloratzeko nahitaez edo beren borondatez egindako ekarpen sozialen guztirako zenbatekoa hartu behar da kontuan (zenbateko hori onartutako azken balantzetik atera behar da) eta, behar izanez gero, egotzi ondoren konpentsatu gabe dauden galera sozialak kendu behar dira.

Artículo 16.- Demás valores representativos de la cesión a terceros de capitales propios.

Los valores representativos de la cesión a terceros de capitales propios, distintos de aquéllos a que se refiere el artículo anterior, se valorarán por su nominal, incluidas en su caso, las primas de amortización o reembolso, cualquiera que sea su denominación, representación y la naturaleza de los rendimientos obtenidos.

Artículo 17.- Valores representativos de la participación en fondos propios de cualquier tipo de entidad, negociados en mercados organizados.

Uno. Las acciones y participaciones en el capital social o fondos propios de cualesquiera entidades jurídicas negociadas en mercados organizados, salvo las correspondientes a Instituciones de Inversión Colectiva, se computarán según su valor de negociación en el momento del devengo del Impuesto.

Dos. Cuando se trate de suscripción de nuevas acciones no admitidas todavía a cotización oficial, emitidas por entidades jurídicas que coticen en mercados organizados, se tomará como valor de estas acciones el de la última negociación de los títulos antiguos dentro del período de suscripción.

Tres. En los supuestos de ampliaciones de capital pendientes de desembolso, la valoración de las acciones se hará de acuerdo con las normas anteriores, como si estuviesen totalmente desembolsadas, incluyendo la parte pendiente de desembolso como deuda del contribuyente.

Artículo 18.- Demás valores representativos de la participación en fondos propios de cualquier tipo de entidad.

Uno. Tratándose de acciones y participaciones distintas de aquellas a que se refiere el artículo anterior, la valoración de las mismas se realizará por el valor teórico resultante del último balance aprobado.

No obstante, a efectos de la determinación de la base imponible de este Impuesto, el valor neto contable de los bienes inmuebles, de los valores cotizados en mercados secundarios, de las participaciones en instituciones de inversión colectiva y de los vehículos a que se refiere el artículo 20 de esta Norma Foral, embarcaciones y aeronaves, se sustituirá por su valor conforme a lo previsto, respectivamente, en los artículos 12, 15, 17, apartado Dos de este artículo y 20 de la presente Norma Foral. Asimismo, deberá tenerse en cuenta el valor de los inmuebles, de los valores cotizados en mercados secundarios, de las participaciones en instituciones de inversión colectiva y de los vehículos, embarcaciones y aeronaves que se posean indirectamente a través de la tenencia de participaciones en otras entidades, respecto de las que resultará de aplicación igualmente esta regla, siempre que el porcentaje de participación sea igual o superior al 5 por ciento del capital de esas otras entidades, computándose a estos efectos tanto la participación que se tenga por el contribuyente como las que tengan su cónyuge, pareja de hecho, cuando se trate de parejas de hecho constituidas conforme a lo dispuesto en la Ley del Parlamento Vasco 2/2003, de 7 de mayo, ascendientes, descendientes o colaterales hasta segundo grado, ya tenga su origen el parentesco en la consanguinidad, en la afinidad, en la que resulte de la constitución de la pareja de hecho o en la adopción, y una persona o entidad vinculada en los términos del artículo 16 de la Norma Foral 24/1996, de 5 de julio, del Impuesto sobre Sociedades.

Dos. Las acciones y participaciones en el capital social o en el fondo patrimonial de las Instituciones de Inversión Colectiva se computarán por el valor liquidativo en la fecha del devengo del Impuesto, valorando los activos incluidos en balance de acuerdo con las normas que se recogen en su legislación específica y siendo deducibles las obligaciones con terceros.

Tres. La valoración de las participaciones de los socios o asociados, en el capital social de las cooperativas se determinará en función del importe total de las aportaciones sociales desembolsadas, obligatorias o voluntarias, resultante del último balance aprobado, con deducción, en su caso, de las pérdidas sociales imputadas y pendientes de compensación.

Lau. Artikulu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, erakundeek balorazio egokiak jasotzen dituzten ziurtagiriak eman beharko dizkiete bazkideei, elkarteko kideei eta partaideei.

19. artikulua.- Bizitza aseguruak eta aldi baterako edo biziarteko errentak.

Bat. Bizitza aseguruen zerga oinarria Zerga sortzen denean duten erreskate balioa izango da.

Hala ere, baldin eta, Aseguru Kontratuei buruzko urriaren 8ko 50/1980 Legeko 87. artikuluan xedatutakoa aplikatuta, bizitza aseguruaren onuradun ezeztaezina beste pertsona bat bada, hartzailearen zerga oinarria hartuko da aintzat, hain zuzen ere Zergaren sortzapenean onuradunak jaso beharreko kapitalaren balioa.

Bi. Aldi baterako errentak edo biziarteko errentak, kapitala dirutan, ondasun higigarritan edo higiezinetan ematearen ondorioz sortu direnean, Zerga sortzen den egunean duten kapitalizazio balioaren arabera zenbatu behar dira, pentsioak eratzeko Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen Zergan adierazi diren arau berak aplikatuz.

20. artikulua.- Bitxiak, luxuzko larruak, eta ibilgailuak, ontziak eta aireontziak.

Bitxiak, luxuzko larruak, autoak, 125 zentimetro kubikoko edo gehiagoko zilindrada duten bi edo hiru gurpileko ibilgailuak, laketontziak edo itsas kiroletarako ontziak, hegazkinak, hegazkin txikiak, belaontziak eta gainerako aireontziak Zergaren sortzapen egunean duten merkatuko balioaren arabera konputatuko dira.

Hori dela eta, zergadunek merkatuko balioa kalkulatzeko Arabako Foru Aldundiak Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergarako eta Oinordetza eta Dohaintzen Zergarako onartutako ibilgailu erabiliak baloratzeko taulak erabil ditzakete, hain zuzen ere Ondarearen gaineko Zergaren sortzapen egunean indarrean daudenak.

21. artikulua.- Artelanak eta antzinako gauzak.

Bat. Artelanen eta antzinako gauzen zerga oinarria Zergaren sortzapenean duten merkatuko balioa izango da.

Bi. Foru arau honetako 5. artikuluko lehen bost zenbakietan ezarritako salbuespena gorabehera, definizio hauek ezarri dira:

a) Artelanak: margolanak, eskulturak, marrazkiak, grabatuak, litografiak eta antzekoak, jatorrizkoak izanez gero.

b) Antzinako gauzak: ehun urte baino gehiago dituzten ondasun higigarriak, lanabesak eta apaingarriak, artelanak eta antzinako gauzak izan ezik, baldin eta beraien jatorrizko ezaugarri funtsezkoenak aldatu ez badira azken ehun urteetako aldaketa eta konponketen ondorioz.

22. artikulua.- Eskubide errealak.

Gozameneko eskubide errealen eta jabetza soilaren balorazioa egiteko Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergarako ezarritako irizpideak aplikatuko dira, erreferentziatzat foru arau honetako erregelen arabera ondasunak daukan balioa hartuta, behar izanez gero

23. artikulua.- Administrazio kontzesioak.

Jabari publikoko edo titulartasun publikoko zerbitzuak edo ondasunak ustiatzeko administrazio kontzesioak, iraupena gorabehera, baloratzeko Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergarako ezarritako irizpideak aplikatuko dira.

24. artikulua.- Jabetza intelektualaren edo industrialaren ondoriozko eskubideak.

Jabetza intelektualak eta jabetza industrialak sortzen dituzten eskubideak, hirugarrenei eskuratuak, eskuratzailearen ondarean sartu behar dira (eskuraketa balioa), foru arau honetako 13. artikuluan ezarritakoa gorabehera.

25. artikulua.- Kontratu aukerak.

Kontratu aukerak Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergarako ezarritakoaren arabera baloratuko dira.

Cuatro. A los efectos previstos en este artículo, las entidades deberán suministrar a los socios, asociados o partícipes certificados con las valoraciones correspondientes.

Artículo 19.- Seguros de vida y rentas temporales o vitalicias.

Uno. Los seguros de vida se computarán por su valor de rescate en el momento del devengo del Impuesto.

No obstante, en los supuestos en los que se haya designado como beneficiario irrevocable del seguro de vida a otra persona en aplicación de lo dispuesto en el artículo 87 de la Ley 50/1980, de 8 de octubre, del Contrato de Seguro, el seguro se computará en la base imponible del tomador por el valor del capital que correspondería obtener al beneficiario en el momento del devengo del Impuesto.

Dos. Las rentas temporales o vitalicias, constituidas como consecuencia de la entrega de un capital en dinero, bienes muebles o inmuebles, deberán computarse por su valor de capitalización en la fecha del devengo del Impuesto, aplicando las mismas reglas que para la constitución de pensiones se establecen en el Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados.

Artículo 20.- Joyas, pieles de carácter suntuario y vehículos, embarcaciones y aeronaves.

Las joyas, pieles de carácter suntuario, automóviles, vehículos de dos o tres ruedas cuya cilindrada sea igual o superior a 125 centímetros cúbicos, embarcaciones de recreo o de deportes náuticos, aviones, avionetas, veleros y demás aeronaves, se computarán por el valor de mercado en la fecha de devengo del Impuesto.

A estos efectos, los contribuyentes podrán utilizar, para determinar el valor de mercado, las tablas de valoración de vehículos usados aprobadas por la Diputación Foral, a efectos del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados y del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones, que estuviesen vigentes en la fecha de devengo del Impuesto sobre el Patrimonio.

Artículo 21.- Objetos de arte y antigüedades.

Uno. Los objetos de arte o antigüedades se computarán por el valor de mercado en la fecha de devengo del Impuesto.

Dos. Sin perjuicio de la exención que se contempla en los números Uno a Cinco del artículo 5 de la presente Norma Foral, se entenderá por:

a) Objetos de arte: las pinturas, esculturas, dibujos, grabados, litografías u otros análogos, siempre que, en todos los casos, se trate de obras originales.

b) Antigüedades: los bienes muebles, útiles u ornamentales, excluidos los objetos de arte, que tengan más de cien años de antigüedad y cuyas características originales fundamentales no hubieran sido alteradas por modificaciones o reparaciones efectuadas durante los cien últimos años.

Artículo 22.- Derechos reales.

Los derechos reales de disfrute y la nuda propiedad se valorarán con arreglo a los criterios señalados en el Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados, tomando, en su caso, como referencia el valor asignado al correspondiente bien de acuerdo con las reglas contenidas en la presente Norma Foral.

Artículo 23.- Concesiones administrativas.

Las concesiones administrativas para la explotación de servicios o bienes de dominio o titularidad pública, cualquiera que sea su duración, se valorarán con arreglo a los criterios señalados en el Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados.

Artículo 24.- Derechos derivados de la Propiedad Intelectual e Industrial.

Los derechos derivados de la Propiedad Intelectual e Industrial, adquiridos de terceros, deberán incluirse en el patrimonio del adquirente por su valor de adquisición, sin perjuicio de lo previsto en el artículo 13 de esta Norma Foral.

Artículo 25.- Opciones contractuales.

Las opciones de contratos se valorarán de acuerdo con lo que establece el Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados.

26. artikulua.- Gainerako ondasun eta eskubide ekonomikoak.

Zergadunari egotzi ahal zaizkion gainerako ondasun eta eskubide ekonomikoen balioa Zergaren sortzapen eguneko merkatuko balioa izango da.

27. artikulua.- Zorren balorazioa.

Bat. Zorrak baloratzeko Zergaren sortzapen egunean duten balio nominala hartuko da, eta behar bezala egiaztatuta daudenak bakarrik kendu ahal izango dira.

Bi. Ezin kendu izango dira:

a) Salbuetsitako ondasunak edo eskubideak eskuratzeko egindako zorrak. Salbuespena partziala bada, zorren zati proportzionala kendu ahal izango da, bidezkoa izanez gero.

b) Abalatutako kopuruak, harik eta, eskubidea baliatu eta zordun nagusia kobraezin gertatu ondoren, abal emaileak zorra ordaindu behar izan arte. Betebeharra solidarioa bada, abalatutako kopuruak ezin kendu izango dira eskubidea abala jarri duenaren aurka baliatu arte.

c) Ondasun bat eskuratzean geroratutako prezioa ordainduko dela bermatzen duen hipoteka; hala ere, geroratutako prezioa edo bermatutako zorra ken daiteke.

Hiru. Ondasunak edo eskubideak eskuratzeko egindako zorren ondoriozko kenkaria inolaz ere ezin daiteke izan Zergari buruzko arauetan ezarritakoaren araberako balorazioa baino gehiago.

28. artikulua.- Zerga oinarria zehaztea.

Oro har, zerga oinarria zuzeneko zenbatespenaren bidez zehaztuko da.

Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 52. artikuluan azaltzen diren inguruabarrak gertatzen direnean, zerga oinarriak zehazteko zeharkako zenbatespenaren araubidea aplikatu ahal izango.

29. artikulua.- Peritu tasazioa.

Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorreko 129. artikuluan aipatzen den adituen tasazio kontrajarria foru arau honetako 20., 21. eta 26. artikuluetan aipatzen diren ondasunei eta eskubideei soilik aplikatu ahal izango zaie, foru arau honetako 20. artikuluko bigarren paragrafoan ezarritako aukera baliatzen denean izan ezik.

V. KAPITULUA

LIKIDAZIO OINARRIA

30. artikulua.- Likidazio oinarria.

Likidazio oinarria kalkulatzeko salbuetsitako gutxienekoa (800.000 euro) kendu behar da zerga oinarritik.

VI. KAPITULUA

ZERGAREN SORTZAPENA

31. artikulua.- Zergaren sortzapena.

Zerga urtero sortuko da abenduaren 31n; zergaduna egun horretan titular den ondarea kargatuko du.

VII. KAPITULUA

ZERGA ZORRA

32. artikulua.- Kuota osoa.

Zergaren likidazio oinarria ondoko eskalan ezarritako tasen arabera kargatuko da:

LIKIDAZIO OINARRIA GEHIENEZ (EUROAK)	KUOTA OSOA EUROAK	LIKIDAZIO OINARRIA, GAINERAKOA GEHIENEZ (EUROAK)	TASA (EHUNEKOA)
0	0	200.000	0,20
200.000	400	200.000	0,30
400.000	1.000	400.000	0,50
800.000	3.000	800.000	0,90
1.600.000	10.200	1.600.000	1,30
3.200.000	31.000	3.200.000	1,70
6.400.000	85.400	6.400.000	2,10
12.800.000	219.800	Hortik gora	2,50

Artículo 26.- Demás bienes y derechos de contenido económico.

Los demás bienes y derechos de contenido económico, atribuibles al contribuyente, se valorarán por su precio de mercado en la fecha de devengo del Impuesto.

Artículo 27.- Valoración de las deudas.

Uno. Las deudas se valorarán por su nominal en la fecha de devengo del Impuesto y sólo serán deducibles siempre que estén debidamente justificadas.

Dos. No serán objeto de deducción:

a) Las deudas contraídas para la adquisición de bienes o derechos exentos. Cuando la exención sea parcial, será deducible, en su caso, la parte proporcional de las deudas.

b) Las cantidades avaladas, hasta que el avalista esté obligado a pagar la deuda, por haberse ejercitado el derecho contra el deudor principal y resultar éste fallido. En el caso de obligación solidaria, las cantidades avaladas no podrán deducirse hasta que se ejercite el derecho contra el avalista.

c) La hipoteca que garantice el precio aplazado en la adquisición de un bien, sin perjuicio de que sí lo sea el precio aplazado o deuda garantizada.

Tres. En ningún caso serán objeto de deducción las deudas contraídas para la adquisición de bienes o derechos en un importe superior a la valoración que corresponda de acuerdo con las normas de este Impuesto.

Artículo 28.- Determinación de la base imponible.

Con carácter general, la base imponible se determinará en régimen de estimación directa.

Cuando concurran las circunstancias previstas en el artículo 52 de la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava, será aplicable el régimen de estimación indirecta de bases tributarias.

Artículo 29.- Tasación pericial.

La tasación pericial contradictoria a que se refiere el artículo 129 de la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava, sólo será de aplicación a los bienes y derechos mencionados en los artículos 20, 21 y 26 de esta Norma Foral, excepto cuando se haga uso de lo previsto en el párrafo segundo del artículo 20 de esta Norma Foral.

CAPÍTULO V

BASE LIQUIDABLE

Artículo 30.- Base liquidable.

La base imponible se reducirá en concepto de mínimo exento en 800.000 euros.

CAPÍTULO VI

DEVENGO DEL IMPUESTO

Artículo 31.- Devengo del Impuesto.

El Impuesto se devengará el 31 de diciembre de cada año y afectará al patrimonio del cual sea titular el contribuyente en dicha fecha.

CAPÍTULO VII

DEUDA TRIBUTARIA

Artículo 32.- Cuota íntegra.

La base liquidable del Impuesto será gravada a los tipos de la siguiente escala:

BASE LIQUIDABLE HASTA EUROS	CUOTA ÍNTEGRA EUROS	RESTO BASE LIQUIDABLE HASTA EUROS	TIPO APLICABLE (PORCENTAJE)
0	0	200.000	0,20
200.000	400	200.000	0,30
400.000	1.000	400.000	0,50
800.000	3.000	800.000	0,90
1.600.000	10.200	1.600.000	1,30
3.200.000	31.000	3.200.000	1,70
6.400.000	85.400	6.400.000	2,10
12.800.000	219.800	En adelante	2,50

33. artikulua.- Kuota osoaren muga.

Bat. Betebehar pertsonalagatik zergadun direnen kasuan, zerga honen kuota osoaren eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kuota osoaren batura ezin da izan Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga oinarri orokorraren eta aurrezpenaren zerga oinarriaren ehuneko 65 baino gehiago. Hori dela eta:

a) Ondarearen gaineko Zergaren kuota osoaren zati bat ez da kontuan hartuko, hain zuzen ere izaera edo destinoa dela eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauak kargatzen dituen etekinak sortu ezin dituzten ondare elementuei dagokien zenbatekoa.

b) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga oinarriari ondoko hauek gehituko zaizkio: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 29ko 3/2007 Foru Arauko 37. artikuluko 2. eta 3. idatz zatietan aipatzen diren dibidenduak eta mozkinetako partaidetzak.

c) Bi kuota horien batura goian ezarritako gehieneko zenbatekoa baino gehiago bada, Ondarearen gaineko Zergaren kuota murriztuko da ezarritako mugara ekarri arte (murrizketa ezin da izan ehuneko 75 baino handiagoa).

Bi. Familia unitate bateko kideek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga batera ordaintzea hautatzen badute, zerga horren kuota osoaren eta Ondarearen gaineko Zergaren kuota osoaren baturaren muga kalkulatzeko kide guztien Ondarearen gaineko Zergaren kuota osoak batu behar dira. Murrizketa aplikatu behar bada, zenbatekoa zergadunen artean hainbanatu behar da bakoitzari Ondarearen gaineko Zergaren kuota osoan dagokion zatiaren proportzioan, aurreko idatz zatian xedatutakoa gorabehera.

Hiru. Artikulu honetan ezarritako batura egiteko, zergadunaren Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren oinarriari gehitu behar zaizkio jabetza soila daukan ondasunek sortutako etekinak, baldin eta gozamena:

a) Ezkontideari, izatezko bikotekideari (Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratutako bikotea), aurreko bati, ondorengo bati edo bigarren graduko albo ahaide bati (ahaidetasunaren jatorria hauetako bat izan daiteke: odolkidetasuna, ezkontza, izatezko bikotearen eraketa edo adopzioa) eratxiki badio, edo Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 24/1996 Foru Arauko 16. artikuluaren arabera lotuta dagoen pertsona edo erakunde bati.

b) Hirugarren bati eskualdatu badio Zergaren sortzapenaren aurreko bost urteetan.

Batera zein bestera, eta besterik frogatu ezean, ondasunen gozamenak urtean sortutako etekinen zenbatekoa honela kalkulatuko da: ondasunen jabetza osoaren balioaren ehuneko 5a (balio hori foru arau honetako 12 - 26 bitarteko artikuluetan ezarritakoaren arabera zehaztu behar da).

Gainera, zergadunaren ondorean sartuko dira Zergaren sortzapenaren aurreko bost urteetan kosturik gabe eskualdatutako ondasunak, ondoko kasuan izan ezik: dohaintza emaileari Ondarearen gaineko Zergaren ordainketan ondasunen balioaren besteko zenbatekoa kargatu zaiola frogatuz gero. Erregela hau ez zaie aplikatuko irabazteko asmorik gabeko elkarteen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarriei buruzko uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauko 18. artikuluan aipatzen diren erakundeen esku kostu gabe jarritako ondasunei.

34. artikulua.- Atzerrian ordaindutako zergak.

Bat. Zerga betebehar pertsonala dela bide ordaindu behar dutenek ondoko kopuruetatik txikiena ken dezakete Zergaren kuotatik atzerrian dauden ondasunak edo atzerrian baliatu behar diren eskubideak direla eta, nazioarteko itunetan eta hitzarmenetan xedatutakoa gorabehera:

a) Zergaren kargapean dauden ondare elementuengatik atzerrian karga pertsonala dela eta benetan ordaindutako zenbatekoa.

Artículo 33.- Límite de la cuota íntegra.

Uno. La cuota íntegra de este Impuesto conjuntamente con la cuota íntegra del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, no podrá exceder, para los contribuyentes sometidos al Impuesto por obligación personal, del 65 por ciento de la base imponible general y del ahorro del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas. A estos efectos:

a) No se tendrá en cuenta la parte de cuota íntegra del Impuesto sobre el Patrimonio que corresponda a elementos patrimoniales que, por su naturaleza o destino, no sean susceptibles de producir los rendimientos gravados por la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

b) Se sumará a la base imponible del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas el importe de los dividendos y participaciones en beneficios a los que se refiere el apartado 2 y 3 del artículo 37 de la Norma Foral 3/2007, de 29 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

c) En el supuesto de que la suma de ambas cuotas supere el límite anterior, se reducirá la cuota del Impuesto sobre el Patrimonio hasta alcanzar el límite indicado, sin que la reducción pueda exceder del 75 por ciento.

Dos. Cuando los componentes de una unidad familiar hayan optado por la tributación conjunta en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, el límite de la cuota íntegra conjunta de dicho Impuesto y de la del Impuesto sobre el Patrimonio, se calculará acumulando las cuotas íntegras devengadas por aquéllos en este último Impuesto. En su caso, la reducción que proceda practicar se prorrateará entre los contribuyentes en proporción a sus respectivas cuotas íntegras en el Impuesto sobre el Patrimonio, sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado anterior.

Tres. A los efectos del cálculo previsto en este artículo, deberá adicionarse a la base del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas correspondiente al contribuyente el importe de los rendimientos correspondientes a los bienes cuya nuda propiedad corresponda al contribuyente, y el usufructo:

a) Haya sido atribuido por el contribuyente al cónyuge, pareja de hecho, cuando se trate de parejas de hecho constituidas conforme a lo dispuesto en la Ley del Parlamento Vasco 2/2003, de 7 de mayo, ascendientes, descendientes o colaterales de segundo grado, ya tenga su origen el parentesco en la consanguinidad, en la afinidad, en la que resulte de la constitución de la pareja de hecho o en la adopción, o a una persona o entidad vinculada en los términos del artículo 16 de la Norma Foral 24/1996, de 5 de julio, del Impuesto sobre Sociedades.

b) Haya sido transmitido por el contribuyente a un tercero en los cinco años anteriores al devengo de este Impuesto.

En ambos casos, se presumirá, salvo prueba en contrario, que los rendimientos anuales correspondientes al usufructo de los citados bienes ascienden al 5 por ciento del valor por el que deba computarse la plena propiedad de los mismos, según lo dispuesto en los artículos 12 a 26 de esta Norma Foral.

Asimismo, se computarán en el patrimonio del contribuyente los bienes que éste haya transmitido lucrativamente en los cinco años anteriores al devengo de este Impuesto, salvo que se acredite que el donatario tributa efectivamente, por un importe equivalente al valor de los mismos en el Impuesto sobre el Patrimonio. Esta regla no se aplicará a los bienes de los que se haya dispuesto lucrativamente en favor de entidades a las que se refiere el artículo 18 de la Norma Foral 16/2004, de 12 de julio, de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos e incentivos fiscales al mecenazgo.

Artículo 34.- Impuestos satisfechos en el extranjero.

Uno. En el caso de obligación personal de contribuir y sin perjuicio de lo que se disponga en los Tratados o Convenios Internacionales, de la cuota de este Impuesto se deducirá, por razón de bienes que radiquen y derechos que pudieran ejercitarse o hubieran de cumplirse en el extranjero, la cantidad menor de las dos siguientes:

a) El importe efectivo de lo satisfecho en el extranjero por razón de gravamen de carácter personal que afecte a los elementos patrimoniales computados en el Impuesto.

b) Atzerrian zergapetutako likidazio oinarriaren zatiari Zergaren batez besteko tasa efektiboa aplikatzearen emaitza.

Bi. Batez besteko karga tasa efektiboa kalkulatzeko eragiketa hauek egin behar dira: eskalaren aplikazioaren emaitzako kuota osoa likidazio oinarriaz zatitu eta horren emaitza 100ez biderkatu. Batez besteko karga tasa efektiboa bi hamarrenekin adierazi behar da.

35. artikulua.- Ondare erantzukizuna.

Zerga honen ordainketan sortzen diren zorren eta zehapenen izaera Kode Zibileko 1.365. artikuluan aipatzen direnena izango da. Beraz, irabazizko ondasunen bitartez kitatuko dira ezkontideek Foru Ogasunarekin kontzeptu hori dela eta dituzten zorrak eta ezartzen zaizkien zehapenak.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoarekin bat etorriz eratutako izatezko bikoteei aplikatu ahal izango zaie, baldin eta bikoteko kideek ezarritako ondare araubide ekonomikoari Kode Zibileko manu hori aplikatu ahal bazaio.

VIII. KAPITULUA

ZERGAREN KUDEAKETA

36. artikulua.- Autolikidazioa.

Bat. Zergadunek zerga honen autolikidazioa aurkeztu behar dute eta behar den kasuetan zerga zorra ordaindu behar dute. Aurkezpena eta ordainketa non, nola eta noiz egin behar diren Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak ezarriko du. Gainera, foru diputatu horrek autolikidazioak baliabide elektronikoen bitartez zer kasutan eta nola aurkeztu daitezkeen finkatuko du. Halaber, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak autolikidazio eredu erraztuak edo bereziak erabiltzea onartu ahal izango du.

Bi. Zergadunek eragiten dieten datu guztiak adierazi behar dituzte autolikidazioetan, eta horiekin batera ezartzen diren agiri eta frogagiri guztiak aurkeztu behar dituzte.

Hain zuzen ere, autolikidazioan, batetik, jarduera ekonomikoei dagozkien ondasunak, eskubideak eta zorrak zehaztu behar dituzte, bai eta haien balioak ere, eta bestetik, partaidetzak eta foru arau honetako 6. artikuluan xedatutakoaren arabera salbuetsita dauden beraien balioen zatiak.

Hiru. Zerga zorrak eta zehapenak ordaintzeko ondasunak edo eskubideak eman ahal izango dira, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorreko 59. artikuluan ezarri den bezala.

37. artikulua.- Autolikidazioa aurkeztu behar duten pertsonak.

Ondokoek aurkeztu behar dute Ondarearen gaineko Zergaren aitorpena: autolikidazioaren ondorioz dirua sartu behar duten zergadunek, bai eta, autolikidazioaren emaitza bestelakoa izan arren, 2.000.000 eurotik gorako balioa duten ondasunak eta eskubideak dituztenek (balio hori Zergari buruzko arauak aplikatuta kalkulatu behar da).

IX. KAPITULUA

ARAU HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

38. artikulua.- Arau hausteak eta zehapenak.

Foru arau honetan ezarritako arau bereziak gorabehera, zerga honi dagozkion arau hausteak Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorreko IV. tituluan xedatutakoaren arabera kalifikatu eta zehatuko dira.

X. KAPITULUA

JURISDIKZIO ORDENA

39. artikulua.- Jurisdikzio ordena.

Foru arau honetan aipatutako gaien inguruan Administrazioaren eta zergadunen artean gertatzen diren egitezko edo zuzenbidezko auziak ebazteko jurisdikzio eskudun bakarra administrazioarekiko auzien jurisdikzioa izango da, betiere bide ekonomiko-administratiboa agortu ondoren.

b) El resultado de aplicar el tipo medio efectivo del Impuesto a la parte de base liquidable gravada en el extranjero.

Dos. Se entenderá por tipo medio efectivo de gravamen el resultado de multiplicar por 100 el cociente obtenido de dividir la cuota íntegra resultante de la aplicación de la escala entre la base liquidable. El tipo medio efectivo de gravamen se expresará con dos decimales.

Artículo 35.- Responsabilidad patrimonial.

Las deudas tributarias y, en su caso, las sanciones, por este Impuesto tendrán la misma consideración de aquellas otras a las cuales se refiere el artículo 1.365 del Código Civil y, en consecuencia, los bienes gananciales responderán directamente frente a la Hacienda Foral por estas deudas, y, en su caso, sanciones, contraídas por uno de los cónyuges.

Lo previsto en el párrafo anterior resultará aplicable a las parejas de hecho constituidas conforme a lo dispuesto en la Ley del Parlamento Vasco 2/2003, de 7 de mayo, cuando al régimen económico patrimonial establecido por los miembros de la misma le resulte de aplicación dicho precepto del Código Civil.

CAPÍTULO VIII

GESTIÓN DEL IMPUESTO

Artículo 36.- Autoliquidación.

Uno. Los contribuyentes están obligados a presentar autoliquidación y, en su caso, a ingresar la deuda tributaria en el lugar, forma y plazos que se determinen por el Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, que podrá establecer los supuestos y condiciones de presentación de las autoliquidaciones por medios electrónicos. Igualmente el Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos podrá aprobar la utilización de modalidades simplificadas o especiales de autoliquidación.

Dos. Los contribuyentes deberán cumplimentar la totalidad de los datos que les afecten contenidos en las autoliquidaciones y acompañar los documentos y justificantes que se establezcan.

En particular, deberán hacer constar en la autoliquidación los bienes, derechos y deudas, así como su valor, correspondientes a las actividades económicas, del mismo modo que las participaciones y la parte del valor de las mismas que, en uno y otro caso, queden exentas de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 6 de esta Norma Foral.

Tres. El pago de la deuda tributaria y, en su caso, las sanciones, podrá realizarse mediante la entrega de bienes o derechos en los términos previstos en el artículo 59 de la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava.

Artículo 37.- Personas obligadas a presentar autoliquidación.

Están obligados a presentar autoliquidación por este Impuesto los contribuyentes cuya autoliquidación resulte a ingresar o cuando, no dándose esta circunstancia, el valor de sus bienes o derechos, determinado de acuerdo con las normas reguladoras del Impuesto, resulte superior a 2.000.000 de euros.

CAPÍTULO IX

INFRACCIONES Y SANCIONES

Artículo 38.- Infracciones y sanciones.

Sin perjuicio de las normas especiales contenidas en la presente Norma Foral, las infracciones tributarias en este Impuesto se calificarán y sancionarán con arreglo a lo dispuesto en el Título IV de la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava.

CAPÍTULO X

ORDEN JURISDICCIONAL

Artículo 39.- Orden jurisdiccional.

La jurisdicción contencioso-administrativa, previo agotamiento de la vía económico-administrativa, será la única competente para dirimir las controversias de hecho y de derecho que se susciten entre la Administración y los contribuyentes en relación con cualquiera de las cuestiones a que se refiere la presente Norma Foral.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa. Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren aipamenak.

Antolamendu juridikoan Ondarearen gaineko Zergari buruzko abenduaren 11ko 23/1991 Foru Araua eta Ondarearen gaineko Zerga 20011ko eta 2012ko ekitaldietarako berriz ere indarrean jarri zuen abenduaren 22ko 19/2011 Foru Araua aipatzen diren guztietan aipamena foru arau honetan ezarritako Ondarearen gaineko Zergari dagokiola pentsatu behar da.

Bigarrena. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 29ko 3/2007 Foru Arauaren aldaketa.

Bat. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 3/2007 Foru Arauko 44. artikuluko 2. idatz zatiko c) letrako lehenengo paragrafoa aldatu da eta honela geratu da:

"c) Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 6. artikuluan aipatutako enpresa edo partaidetzen kostu gabeko eskualdaketetan, ezkontide, izatezko bikotekide, aurreko edo ondorengo ahaideen alde egiten direnean, hurrengo baldintza hauek betetzen badira:"

Bi. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 3/2007 Foru Arauko 44. artikuluko 2. idatz zatiko d) letrako lehenengo paragrafoa aldatu da eta honela geratu da:

"d) Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 6. artikuluan aipatutako enpresa edo partaidetzen eskualdaketetan, enpresako langile baten edo batzuen alde egiten direnean, aurreko letran jasotako betekizunak betetzen badira eta espezialitate hauek kontuan izanik:"

Hirugarrena. Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko maiatzaren 16ko 11/2005 Foru Arauaren aldaketa.

Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko maiatzaren 16ko 11/2005 Foru Arauko 22. artikuluko 7. idatz zatiko lehenengo paragrafoa aldatu da eta honela geratu da:

"8. Banako enpresaren bat, lanbide negozioren bat, erakundeen partaidetzak edo horien gaineko gozamen eskubideak "mortis causa" eskuratzen badituzte hildakoaren hirugarren mailara arteko alboko ahaideek, eta eskuraketari Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 6. artikuluko bigarren idatz zatian arautzen den salbuespena aplikatu ahal bazaio, orduan Zergaren zerga oinarrian ehuneko 95eko murrizketa aplikatu ahal izango dute, baldin eta ondorengorik edo adoptaturik ez badago eta eskuraketak bere hartan irauten badu kausatzailearen heriotzaren ondorengo bost urteetan, eskuratzailea epe hori amaitu baino lehen hil ezean."

Laugarrena. 1985eko maiatzaren 9a baino lehen egindako kontratuen arabera alokatu diren higiezinak baloratzea.

1985eko maiatzaren 9a baino lehen egindako kontratuen arabera alokatu diren higiezinen balioa, sortutako errentaren 100eko 4 kapitalizatuz zehaztuko da, betiere, horrela kalkulatutako balioa, Foru Arau honek aurreikusitako ondasun higiezinak baloratzeko arauak aplikatuz izango lukeena baino txikiagoa bada.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Bat. Ondokoak indargabetuta geratuko dira 2013ko urtarrilaren 1ean:

a) 19/2011 Foru Araua, abenduaren 22koa, Ondarearen gaineko Zergari buruzkoa.

b) Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko maiatzaren 16ko 11/2005 Foru Arauko 21. artikuluko 2. idatz zatia.

c) Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko martxoaren 31ko 11/2003 Foru Arauko 71. artikuluko 5. idatz zatia.

Bi. Indargabetuta geratu dira foru arau honetan xedatutakoaren kontrako maila bereko eta beheragoko mailako xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Foru arau hau ALHAOn argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

DISPOSICIONES ADICIONALES

Primera. Referencias a la Norma Foral del Impuesto sobre el Patrimonio.

Las referencias contenidas en el ordenamiento jurídico a la Norma Foral 23/1991, de 11 de diciembre, del Impuesto sobre el Patrimonio, o a la Norma Foral 19/2011, de 22 de diciembre, por la que se establece el Impuesto sobre el Patrimonio para los ejercicios 2011 y 2012, se entenderán efectuadas al Impuesto sobre el Patrimonio regulado en la presente Norma Foral.

Segunda. Modificación de la Norma Foral 3/2007, de 29 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

Uno. Se da nueva redacción al primer párrafo de la letra c) del apartado 2 del artículo 44 de la Norma Foral 3/2007, de 29 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, que queda redactado de la siguiente forma:

"c) Con ocasión de las transmisiones lucrativas de empresas o participaciones a que se refiere el artículo 6 de la Norma Foral del Impuesto sobre el Patrimonio en favor del cónyuge, pareja de hecho, ascendientes o descendientes, siempre que se cumplan los siguientes requisitos:"

Dos. Se da nueva redacción al primer párrafo de la letra d) del apartado 2 del artículo 44 de la Norma Foral 3/2007, de 29 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, que queda redactado de la siguiente forma:

"d) Con ocasión de las transmisiones de empresas o participaciones a que se refiere el artículo 6 de la Norma Foral del Impuesto sobre el Patrimonio en favor de uno o varios de los trabajadores de la empresa, siempre que se cumplan los requisitos previstos en la letra anterior, teniéndose en cuenta las siguientes especialidades:"

Tercera. Modificación de la Norma Foral 11/2005, de 16 de mayo, del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones.

Se da nueva redacción al primer párrafo del apartado 7 del artículo 22 de la Norma Foral 11/2005, de 16 de mayo, del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones, que queda redactado de la siguiente forma:

"8. Las adquisiciones "mortis causa" de una empresa individual, de un negocio profesional o participaciones en entidades o de derechos de usufructo sobre los mismos, a las que sea de aplicación la exención regulada en el apartado Dos del artículo 6 de la Norma Foral del Impuesto sobre el Patrimonio, por colaterales hasta el tercer grado de la persona fallecida y siempre que no existan descendientes o adoptados, gozarán de una reducción del 95 por ciento en la base imponible del Impuesto, siempre que la adquisición se mantuviera durante, los cinco años siguientes al fallecimiento del causante, salvo que falleciese el adquirente dentro de ese plazo."

Cuarta. Valoración de los inmuebles arrendados en virtud de contratos celebrados con anterioridad al 9 de mayo de 1985.

El valor de los inmuebles arrendados en virtud de contratos celebrados con anterioridad al día 9 de mayo de 1985 se determinará por capitalización al 4 por 100 de la renta devengada, siempre que el valor así calculado sea inferior al que resultaría de la aplicación de las reglas de valoración de bienes inmuebles previstas en esta Norma Foral.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Uno. A partir de 1 de enero de 2013 quedan derogadas:

a) La Norma Foral 19/2011, de 22 de diciembre, reguladora del Impuesto sobre el Patrimonio.

b) El apartado 2 del artículo 21 de la Norma Foral 11/2005, de 16 de mayo, del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones.

c) El apartado 5 del artículo 71 de la Norma Foral 11/2003, de 31 de mayo, del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados.

Dos. Asimismo, quedarán derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo dispuesto en la presente Norma Foral.

DISPOSICIONES FINALES

Primera. La presente Norma Foral entrará en vigor el día de su publicación en el BOTHA.

Bigarrena. Arautegi bidezko garapen berria onartzen ez den bitartean, eta foru arau honetan xedatutakoaren aurka ez doan guztirako, abenduaren 21eko 160/1999 Foru Dekretua indarrean dagoela ulertuko da. Foru dekretu horren bidez arautegi bidezko beste garapen bat eman zitzaion Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 4. artikuluko hamargarren idatz zatian xedatutakoari, hain zuzen ere, jarduera ekonomikoa garatzeko beharrezkoak diren pertsona fisikoen hainbat ondasun eta eskubideren salbuespenari eta hainbat erakundetako partaidetzaren salbuespenari buruz xedatutakoari (2012ko abenduaren 31n indarrean zegoen testua).

Hirugarrena. Arabako Foru Aldundiak baimena dauka foru arau hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko martxoaren 11.– Lehendakaria, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

Segunda. En tanto no se apruebe un nuevo desarrollo reglamentario y, en todo lo que no contradiga lo dispuesto en la presente Norma Foral, se entenderá vigente el Decreto Foral 160/1999, de 21 diciembre, que da nuevo desarrollo reglamentario a lo dispuesto en el apartado Diez del artículo 4 de la Norma Foral reguladora del Impuesto sobre el Patrimonio, sobre exención de determinados bienes y derechos de las personas físicas necesarios para el desarrollo de su actividad económica, así como la exención de las participaciones en determinadas entidades, en su redacción vigente a 31 de diciembre de 2012.

Tercera. Se autoriza a la Diputación Foral de Álava para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación de la presente Norma Foral.

Vitoria-Gasteiz, 11 de marzo de 2013.– El presidente, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

1407

Bateraezintasun IX. Batzordetzako Irizpena, Victor José Ortíz de Murua García de Vicuña, Juan José Unzaga Bilbao, Nerea Martínez Cerrillo eta Roberto González Muro jaun-andreek prokuradore karguetarako dezaketen bateragarritasunari buruzkoa.

Arabako Biltzar Nagusiek 2013ko martxoaren 11n egindako Osoko Bilkuran ondoko Irizpena onetsi dute:

Bateraezintasun IX. Batzordetzako Irizpena, Victor José Ortíz de Murua García de Vicuña, Juan José Unzaga Bilbao, Nerea Martínez Cerrillo eta Roberto González Muro jaun-andreek prokuradore karguetarako dezaketen bateragarritasunari buruzkoa.

2013ko urtarrilaren 28an, otsailaren 4 eta 11n 17ko Osoko Bilkuretan VICTOR JOSÉ ORTÍZ DE MURUA GARCÍA DE VICUÑA, JUAN JOSÉ UNZAGA BILBAO, NEREA MARTÍNEZ CERRILLO eta ROBERTO GONZÁLEZ MURO jaun-andreek Arabako Biltzar Nagusietako Prokuradore kargua hartu zuten, hurrenez hurren, Araudiaren 4.2 artikuluak finkatzen dituen baldintzen arabera.

Arabako Biltzar Nagusietako Funtzionamenduko Araudiak honako hau xedatzen du 15.4 artikuluan:

"Prokuradoreen bateraezintasun Irizpenak kontuan izan behar du indarrean dagoen araudiak eta Foru Arauek horri buruz xedatzen dutena".

Indarrean dagoen Hauteskunde Legea —eta Araudiak lege horri eusten dio—, Eusko Legebiltzarreko martxoaren 27ko 1/1987 Legea da, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Lurralde Historikoen Biltzar Nagusiak hautatzekoari buruzkoa, alegia. Lege horren 5. artikuluak ez-hautagarritasunari buruzko arrazoiak arautzen ditu, eta arrazoi horiek bateraezintasunerako arrazoiak ere badira.

Aipatutako Prokuradoreen bateraezintasun-adierazpenak aztertuta eta behin horiek Lurralde Historikoen Biltzar Nagusiak hautatzekoari buruzko Legean xedatutakoarekin erlazionatu eta parekatu ondoren, irizpena egiteko unean ez dugu topatu euren inolako kargu publikorik aipatutako martxoaren 27ko 1/1987 Legearen 5. artikuluan finkatzen diren arrazoiak bete dezakeenik.

Honako Irizpena onesten da:

Adieraztea ez dagoela inolako bateraezintasunik VICTOR JOSÉ ORTÍZ DE MURUA GARCÍA DE VICUÑA, JUAN JOSÉ UNZAGA BILBAO, NEREA MARTÍNEZ CERRILLO eta ROBERTO GONZÁLEZ MURO jaun-andreek Prokuradore kargua egikari dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko martxoaren 11.– Lehendakaria, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

1407

Dictamen de la Comisión IX de Incompatibilidades, en relación a la compatibilidad para el cargo de los procuradores D. Victor José Ortíz de Murua García de Vicuña, D. Juan José Unzaga Bilbao, Dña. Nerea Martínez Cerrillo y D. Roberto González Muro.

Las Juntas Generales de Álava en Sesión Plenaria celebrada el día 11 de marzo de 2013 han aprobado el siguiente Dictamen:

Dictamen de la Comisión IX de Incompatibilidades, en relación a la compatibilidad para el cargo de los procuradores D. Victor José Ortíz de Murua García de Vicuña, D. Juan José Unzaga Bilbao, Dña. Nerea Martínez Cerrillo y D. Roberto González Muro.

En las sesiones plenarias correspondientes a los días 28 de enero, 4 y 11 de febrero de 2013 adquirieron respectivamente su condición de Procurador/a de las Juntas Generales de Álava, con los requisitos del artículo 4.2 del Reglamento, D. VICTOR JOSÉ ORTÍZ DE MURUA GARCÍA DE VICUÑA, D. JUAN JOSÉ UNZAGA BILBAO, DÑA. NEREA MARTÍNEZ CERRILLO y D. ROBERTO GONZÁLEZ MURO.

El Reglamento de las Juntas Generales de Álava, en su artículo 15.4 establece:

"El Dictamen de compatibilidad de los Procuradores deberá tener en cuenta lo dispuesto sobre el particular en la legislación vigente y en las Normas Forales".

La Ley electoral vigente, a la que se remite, es la Ley 1/1987, de 27 de marzo, del Parlamento Vasco, de Elecciones a Juntas Generales de los Territorios Históricos de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa, que regula en su artículo 5º las causas de inelegibilidad, que lo son también de incompatibilidad.

Examinada la declaración de incompatibilidad presentadas por los Procuradores que se ha relacionado y cotejado con lo dispuesto en la Ley de Elecciones a Juntas Generales de los Territorios Históricos, no se ha detectado, en el momento de emitirse el dictamen, cargo público que pueda incurrir en las causas señaladas en el artículo 5º de la citada Ley 1/1987, de 27 de marzo.

Se aprueba el siguiente Dictamen:

Declarar que no existe incompatibilidad alguna para el ejercicio de su cargo en los Procuradores D. VICTOR JOSÉ ORTÍZ DE MURUA GARCÍA DE VICUÑA, D. JUAN JOSÉ UNZAGA BILBAO, DÑA. NEREA MARTÍNEZ CERRILLO y D. ROBERTO GONZÁLEZ MURO.

Vitoria-Gasteiz, 11 de marzo de 2013.– El presidente, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.